

GUaiXE.eus



**Aizkorbeko festak
larunbatean
ospatuko dira**



Sakanerria >> 7

**Ziordiko II. Herri Krosa igandean
jokatuko da. 11:00etan behe
mailetakoak neurtuko dira.
12:00etatik aurrera helduak**



Kirola >> 13

**Altsasuk NUPen
uda-ikastaro bat
hartuko du**

>> 5



**«Sustraiak», Dantzarima
dantza konpainiaren
estreinaldia**

>> 15

**FyTko kideak
astelehenean
epaituko
dituzte**


2009ko agorrilaren 20an udaleko kideen kontrako mehatxuzko pintadak egin zituzten Arbizun

>> 7

**Astelehenean
konpost uzta
banatzen
hasiko da Mank**

2.458 familia ari dira hondakin organikoak auzo konpostagailuetara eramaten

>> 7



Jaibus, 15 urte joan-etorrian

>> 8-9



**Dena prest Sakanako
Parapente Egunerako**

Bihar, Iturmendin eta Altsasun

>> 11



**Iturmendin
dute segida
Joste
Egunek**

>> 8



**Munduko
Arrozak
prestatuko dira
Irurtzunen**

>> 5



**Etxarriko
Abesbatzaren
udaberri
doinuak**

>> 14

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



garagarriak

5-11

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Milenka

Munduko haur politenari, ZORIONAK zure lehen urtebetetzean. Attuna, amia eta izeba Arrate. Muxu handi bat, Milenka!!

Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideek:

3,50€

Musika

Authority Zero eta Lion Head.

Garagarriaren 5ean, ostiralean, 23:00etan Altsasuko gaztetxean.

Kantu ikasleak. Garagarriaren 6an, larunbatean, 12:00etan Etxarri Aranazko Andra Mari ermitan. **Musika eskola.**

Elizondoko eta Etxarriko abesbatza txikiak. Garagarriaren 6an, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko elizan.

Oztopo. Garagarriaren 6an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko II Padrinon.

Sakeo eta Askeo. Garagarriaren 6an, larunbatean, 23:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean.

Lo peito me brinca. Garagarriaren 7an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko elizan. **Etxarri Aranazko abesbatza.**

Musika eskolako ikasleak. Garagarriaren 9an, asteartean, 10:00etan Irurtzongo kultur etxean. **Atakondoako ikasleendako emanaldia.**

Ikasturte akaberako kontzertua. Garagarriaren 10ean, asteazkenean, 18:30ean Irurtzongo kultur etxean. **Irurtzongo Musika Eskola.**

Dantza

Sustraiak. Garagarriaren 6an, larunbatean, 19:30ean eta 22:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Dantzarima dantza konpainia.**

Antzerkia

Buah txabal. Garagarriaren 5ean, ostiralean 20:30ean Etxarri Aranazko gaztetxean. **Jon Zubiaga.**

Dokumentalak

Jostunak. Garagarriaren 6an, larunbatean, 11:00etan Iturmendiko auzogelan. **Gure Esku Dago.**

Mendi irteerak

Finalista San Adrianen. Garagarriaren 7an, igandean, Etxarri Aranazko. **Udaberri eta Larrañeta mendi taldeak.**



Authority Zero eta Lion Head arituko dira gaur 23:00etatik aurrera Altsasuko gaztetxean.

Olatzagutia-Kodes. Garagarriaren 7an, domekan, goizean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Bizikleta irteerak

Altsasu-katea-Altsasu. Garagarriaren 6an, larunbatean, 8:30ean Altsasuko kultur gune pareteik. 98 km. Aurretik izena eman. **Zikloturista taldea.**

XX. Gurutzetako zeharkaldia. Maiatzaren 24an, domekan, 9:00etan. 50 km. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Ingurumenaren hobekuntza. Garagarriaren 14ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Aralarko Mikel Donea institutua.**

Literatura

Ez zen diruagatik. Garagarriaren 11n,

ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian. **Irakurle taldea Ana Jakaren liburuaz.**

Tailerrak

Elkartasun brotze tailerra. Garagarriaren 5ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko gaztetxean. **Edurnerekin bat.**

Sukaldaritza. Garagarriaren 6an, larunbatean, 17:00etan Uharteko Arakilgo Aralar Mendi elkartearen. **Gazteendako.**

Bestelakoak

Munduko arrozak. Garagarriaren 6an, larunbatean, 10:00etatik aurrera Irurtzongo plazan.

Joste eguna. Garagarriaren 6an, larunbatean, 11:00etatik aurrera Iturmendin. **Gure Esku Dago.**

Sakanako parapente eguna. Garagarriaren 6an, larunbatean, 9:00etatik aurrera Iturmendin.

Iñigo Aritza ikastolaren festa. Garagarriaren 6an, larunbatean, 11:30etik aurrera Ziordian.

Gaztetxearen 8. urteurrena. Garagarriaren 6an, larunbatean, 12:00etatik aurrera Etxarri Aranazko gaztetxean.

Festa erraldoia. Garagarriaren 6an, larunbatean, 21:30etik 00:30era Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 5ean, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Zorri azoka, merkatu soziala. Garagarriaren 7an, igandean, 11:30etik 14:30era Etxarri Aranazko estalopean.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 7an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero SAIOA

9:30etan

Gaurko gaiak:

- Itziar Matxain
- Dantzarima

Esataria: Alfredo

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

107.3 FM

beleixe

www.guaixe.eus-en ON LINE

ETXARRIKO IGERILEKUAK ZABALIK: Larunbatz geroztik zabalik daude Etxarriko igerilekuak. Sasoirako txartela egin nahi duenak kanpineko harreran egin beharko

du (argazkia eraman). Han edo kutxen bidez ordaindu daiteke. Jubilatuek doan dute. Garilaren 6an hasiko dira ikastaroak.

ezkaatza >>

>> Altsasu



Argazki oina.

Euskararen oasia azokan

AEKko hainbat ikasle eta irakasle Baratzekobide plazako belardian eman zuten asteazkeneko goizaren zati bat. Mintzodromoa egiteko hartu zuten haiendako belardia. Taldetxoetan banatuta, gai jakinen inguruan hizke-

tatu ziren denbora tarte batez, gero txandakatuz. Ikasitako euskara agerian uzten zuten bitartean AEKko kideek matrikulazio kanpainako eskaintzaren berri ematen zituzten eskuorriak banatu zituzten.

AEK-ren ikasturte berrirako matrikulazio eskaintza

Hilaren 19a baino lehen matrikulatzen direnak deskontuak eta abantailak izanen dituzte Sakanako AEK-k heldu den ikasturterako matrikulazioepeazabalduta eskaintza berezia abian jarri du. Euskara ikasten jarraitu edo euskara ikasten hasi nahi dutenek orain izena ematen badute

ikasturte berriko matrikulan %5eko deskontua izanen dute. Gainera, ordainketetan malguago ariko dira, epe bat gehituta ohiko ordainketa epeei. Orain matrikulatzen direnak lehentasuna izanen dute taldeak eratzeko orduan.

Informazioa

Sakanako AEKren Itsasi euskaltegian, Altsasun, Gartzia Ximenez 46an edo 948 468 258 telefono zenbakira hots eginez.

SAKANA

Bankua jakiz betez

Ostiralean eta larunbatean makinan batsakandarrek bat egin zuten Nafarroako Jakien Bankuak deitutako Elikagaien Bilketa Handiarekin. Bankuarendako propio erositako jakiak boluntarioen esku utzi zituzten, haiek asteburuan bildutakoa jaso eta Iruñera eramateko. Hansailkatu ondoren herrietako taldeen bidez premia duten 38.000 nafarren artean banatuko dituzte asteburuan jasotako jakiak.



Argazki oina.

>>

Gure e-postak .eus domeinura aldatu ditugu

Astelehenetik aurrera Bierrik fundazioko eta Guaixe astekariko e-posta helbideek .eus bukaera izanen dute

Euskararen Nazioarteko Egune-tik, abenduaren 3tik, Guaixe astekariaren Interneteko helbidea .eus "abizena" du: www.guaixe.eus. Orduetik Guaixe Interneteko euskararen eta euskal kulturaren komunitatearen parte da. .EUS domeinua horretarako sortu baita Interneteko euskararen komunitatea kohe-sionatzeko. Hizkuntzaren normalizazioan lagunduko du domeinua. Aldi berean, Interneten euskara beste hizkuntzen mailan kokatuko du domeinu berriak, euskararen herriarri nazioarteko aitortza eskainiz. Horregatik, .EUS.

Interneteko aldaketa egin ondoren, orain e-postak aldatzeko garaia iritsi zaigu. Beraz, astelehenetik aurrera .eus domeinua jarri beharko du gurekin harremanetan jarri nahi duenak.

EUS domeinua

Haren aldeko mugimendua 2007an hasi zen. Garagarriaren 28az geroztik 92 aitzindari dira .EUS "abizena" dutenak Interneten. Haiek dira oraingoz munduari adierazten diotenak badela komunitate bat eus-

karaz ari dena eta euskal kultura jorrazten duena. Bihartik nahi duen guztiak izanen du .EUS domeinua eskatzeko aukera, beti ere, PuntuEus fundazioaren irizpideak betetzen badira. Guzti behar bezala bideratzeko fundazioak protokoloa zehatza du.

Gure e-posta berriak

Kudeatzailea: bierrik@guaixe.eus
Publizitatea: publi@guaixe.eus eta publizitatea@guaixe.eus
Argitalpen zerbitzua: argi@guaixe.eus
Zorion agurrak: zorion@guaixe.eus
Gutunak: gutunak@guaixe.eus
Kirolak: kirolak@guaixe.eus
Erredakzioa: guaixe@guaixe.eus

Sei pauso

1. www.domeinuak.eus-en sartu.
2. Erabili nahi dugun domeinua eskuragarri dagoen egiaztatu.
3. Erabilgarri badago, web orrian dau-den erregistradore zerrendan bat aukeratu eta bere web orrira jo.
4. Erregistradore web orrian eskatutako datuak bete.
5. Erregistradore fundazioarekin harremanetan jarriko da, domeinuak fundazioaren irizpideak betetzen dituen aztertzeko.
6. Irizpideak betetz gero, fundazioak erregistradoreari web orria aktibatze eskatuko dio. Ordu batzuen ondoren ikusgai izanen da web orria.

SAKANA



Mintzakideak Igartubeiti baserrira txangoan. UTZITAKOIA

Txangoa, euskaraz aritzeko

Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserri museorako bisitan mintzakideak eta haien senideak joan ziren larunbatean. 25 guztira. Museoa bisitatu ondoren baserria bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten. Goiza pasata, bazkaltzeko garaia zen eta Ordiziako merendero batera joan ziren denak. Euskaraz mihia askatzen laguntzea du helburua Mintzakide programak; ongi pasatuz. Larunbatean ederki bete zuen

bere zeregina. Familiak ere euskarazko giroan sartu ziren eta denek hitz egin zuten.

Larunbateko txangoaren esperientzia onak utzitako zapoak halako irteera gehiago ekarriko dituela dirudi. "Ikasten ari den jendeari euskaraz askatzeko aukera ematen zaiolako. Eta familian hizkuntza murgiltzea ematen delako", azaldu digu Edurne Ruiz Irarik. Mintzakide programako arduradunak.



BIKAIN
 GARAJEA, S.A.L.
 948 460 037 Arbizu
 948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea



Benjamin Zufiaurre Goikoetxea

astekoa

hara zer dien

Udarako prest

Kultura, ikerketa eta etorkizuna: bai ala ez

Azken urte hauetan, aberastasu-na eta etorkizuna bideratzeko diren kultur ekintzak eta berrikuntza bideak murriztu egin dira. Artistak, abeslariak, idazleak eta abar zintzilik BEZ berezietan, gai kritika dezenteekin: kategoriarik ez omen dute! Penagarria panderetako Espaina Erreina.

Baina kultur gorrota ez dator bakarrik. Ikerketa gorrota ere badago. Inbertsiorik ez, baina

dirua mafiosoak gizontzeko soberan. Espainako pikarokeria! Hainbat lapur pastelgile, publikoa dena, tardean zatitzeko! Zer demontre, 250 espainiar ikertalde finantziatorik gabe geratzen badira? Zer arraio ikerketa funtsezko eta baliosurik egiten ez bada? Eta zer aitzakia inbertsioak ezeztatzen? Lotsarik ez dutenek aitzakiarik ez dute behar.

Zientzi arloetan ikerlari balioetsuek aukera badute, behintzat, "Europa Ikerketa Kontseiluan" edo "Human Frontiers Science.n". Giza eta hezkuntza arloan hobe erretreta hartzea, karkamaleria hutsa! Iberia pastelgilea, nora doa? Eta alternatiba: "atez ate zikinkeriak"? Eko plangintzen egitarau zabala: ekologia produktiboa, benetako birziklapena eta erabilgarritasuna,

baratzak etheen ordez... Non demontre?

Pentsatzen badugu, txoratzeko giroa! Alemaniaren Europa honetan, zenbat suizidatu behar dira gehiago ezin dutelako? Edo suizidio kolektiboa... Alpeetan edo...? Zer giro dator azken hauteskondeekin, aukerarik hobetzeko, Indikoan Madrilgo edo Burgostar faxistak desagertzeko, bai ala ez?

Urtarrilaren 1ean urteko asmoe-kin gertatzen den bezala, orain, ekainaren hasieran, gure buruari proposatzen dizkiogu udarako asmoak: deskantsatzea, bidaiaren bat egitea, lagunekin ahal den denbora gehiena izatea, festaz festa asteburuak pasatzea... etaneguan egin ezin dugun zerbait, egitea.

Baina guk egin duguna denok ere egin nahi (salbuespenak salbuespen, eta eskubide osoz), eta hemen dago gure gaurko 'koxka': neskek eta mutilek, gazte guztiek, emakumeek eta gizonek, festak, aisialdia eta uda disfrutatzean. Eta... nola ez?

Urte asko daramagu entzuten denok dugula erantzukizuna etxeko lanak egiten eta ondoan ditugun pertsonak zaintzen, hauek ere denon lana baitira. Orokorrean udan hartzen ditugu oporrak gure lantokian, baina gure buruaren zaintzan eta bestean zaintzan ez dago oporrik. Ordua da 'etxeoandrea' soilik izatetik 'etxekogizona', 'etxekogaztea' ere izatera pasatzeko; ea uda honetan lortzen dugun!

Beste aldetik eta festeetako giroan batez ere, 'Ezeta beti da ezetz' ikasi dugu. Eta honek esan nahi du eraso sexistarik gabeko jaien alde gaudela, bakoitzak nahi duena izateko eta egiteko.

Gizonek eta emakumeek zer izan behar duten ezartzen dituzten ereduak kasurik egin nahi ez diegulako, proposamen hau egin dizuegu:

Neska, emakumea, festetan ere gogoratu "EZ" esateko eskubidea duzula, zure gorputza zeurea dela eta inork ez daukala esku-biderik nahi ez duzun zerbait inposatzeko.

Mutila, gizona, ez zaitez erasoen kide izan, egin zerbait kontra eta esan 'ez' erasotzaileei!

Ondo pasa!

Emakumearen Bilgunea

ZUZENKETA



Aurreko astean 8. orrian argitaratu genuen udal hauteskondeen emaitzei buruzko mapan akatsa zegoen, Arruazun independenteak garaile agertu zirela ez baitzen agertzen.

barrutik kanpora
Gero arte

Hiru urtez lanean egon ondoren, Sakanako Hipotekek Kaltetutako Plataformak indarrak berrikuntzeko atsedena hartuko du.

Lanean jarraitzeko mila modu bilatzen egongo gara, baina memento zailtan lagunduko duten eskuak falta zaizkigu. Ardura ikaragarria da eta horizama handia da, horregatik atsedena hartzeko garaia heldu da.

Desagertu ordez, pausan utzi-

ko dugu plataforma, eta Berriozarko lagunak izanen dira jendeari harrera emanen diotena, kasu bakoitza ikertu eta gure herrian behar ditugun ekimenak erabakiko dituenak.

PAH defendatu duzuen guztioi eskerrak eman nahiko genizkizueke, baina batez ere etxekaleratzeekin arazoak izan dituztenak eskertu nahi ditugu beren bizitzaren zatia izaten uzteagatik.

"Familia sakabanatu asko baino, familia handi bat bezala jokatzen duen gizarte batean egon daiteke soilik esperantza". Anwar Sadat.

"Denok batera, langile, ikasle, ideologia guztietako pertsonak, erlijio guztietakoak, gure ezberdintasun logikoekin, jakin dezagun elkartzen gizarte justuagoa eraikitzeko, non pertsona pertsonarendako otsoa ez den izanen,

baizik eta kidea eta anai-arreba". Agustin Tosco.

"Gizartea benetan gauza ederra litzateke batzuek besteengan benetako interesa azalduko balute". Nicolas Sebastien Roch Chamfort.

Sakanako Hipotekek
Kaltetutako Plataformak

objektibo tik



Galiziako jakiei emanak:

Olagarroa, lakona, Padrongo piperrak, ganba handiak eta txikiak, zanburinak, txorizoa... horiek guztiak albariño eta ribeiro ardoekin lagunduta. Horiek guztiak dastatzeko aukera izan zen asteburuan Uharte Arakilgo plazan. Galiziatik propio etorritako pulpeiroa jendetza erakarri zuen uhartera eta ederki lan egin zuten galiziarrek. Pozik bueltatu dira.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net



Aralarko aingerua Irañetan:

Igandean Aralarko aingerua Irañetan bisitan izan zen. Irañetako gurutzearekin herri sarreran harrera egin zioten aingeruari eta hura presente zegoela egin zen igandeko meza. Elizkizuna eta gero, eliz atean herriko soroak bedeinkatu zituen apaizak.

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larrait Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Patxi Flores
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikako Salburordetza

SAKANA

NUPen uda-ikastaro bat hartuko du Altsasuk

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP) hondakinen kudeaketari buruzko uda-ikastaroko egoitza izanen da Altsasu. Ikastaroa irailaren 8an eta 9an izanen da, asteartean eta asteazkenean. Hondakinen kudeaketaren inguruko ikastaroa doakoa da, baina parte hartzeko NUPen www.unavarra.es bidez izena eman beharra dago. Epea zabalik dago eta ikastaroa hasi baino bi egun lehenagora arte egonen da izena emateko aukera. Ikastaroa NUPek Sakanako Mankomunitatearen babesarekin antolatuko du.

Nafarroako unibertsitateen uda-ikastaroek prestakuntza eta kulturako 30 ekintza proposatzen dituzte ekitaldiaren hamabosgarren edizioan. Kultura, zientziak, historia, arkeologia, psikologia, enpresa eta hezkuntzari lotutako gaiak buruzko 28 monografiko dira. Jardueren zati handiena Iruñean egiten da, nahiz eta ikastaroak beste herri batzuetan ere izanen diren, esaterako, Altsasun.



Mank-en kontuak positiboan

Sakanako Mankomunitateak joan den urteko aurrekontuen likidazioa aztertu zuen ostegunean, 2014ko sarrerak eta gastuak zehaztuz. 148.893,94 euroko emaitza positiboarekin itxi zuen Mank-ek urtea. Orain gastu orokorretako diruzaintzak gerakina 228.323,57 eurokoa da. Mank-en zor bizia, berriz, 1.096.710,08 eurokoa da. Gaur egun Mank-en zorpetze maila %4,96koa da, zorpetze muga den %11,17tik 6,21 puntura.

Mank-etik jakinarazi dutenez, aurreko urtean ez bezala, aurten aurrezpen netoa positiboa 213.508,44 eurokoa da. Hori hala izateko Mank-ek gastu korrontean hartu diren neurriak eragina izan dute, esaterako: aseguru berraztertzea, kredituak, erregaiak, energia... Hala ere, Mank-etik kexu azaldu dira diruzaintzan duten hori sakandarren premiara ezin dutelako nahi bezala bideratu. Erakundeen aurrekontuen egonkortasunaren legeak jarritako mugak salatu ditu.



Irurtzun

Guztiak berdin; guztiak arroz

Larunbatean, 10:00etatik aurrera arroza prestatzeko errezeta berriek Irurtzongo kultur aniztasuna erakutsiko du

Arroza Senegalgo, Gambiako, Venezuelako, Argentinako, Marokoko eta Irurtzongo erara prestatzen ikasteko eskola aparta bihurtuko da bihar Irurtzongo plaza. Irakasleak telebistako izarrak izan beharrean irurtzundarrak beraiek izanen dira. Taldetxoetan, bakoitzak bere erara, arroza jendaurrean prestatuko du eta nahi duenak errezeta eta bestelako osagaien erabilerari eta bestelakoei buruz galdetzeko aukera izanen du.

Prestatutako arroz guztiak dastatzeko aukera izanen da bukaeran. Biharko ekimenaren helburuetako bat hori baita: "irurtzundarren arteko topagunea sortzea". Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuko Bego Zestau Baraibar teknikariak azaldu digunez, "irurtzundarrak elkar ezagutzeko eta harremanetan jartzeko gunea bihurtuko da plaza. Irurtzongo kultura aniztasuna, aberastasun hori erakutsi nahi zaio



Errezetak ikasi eta haiek probatzeko aukera izanen da bihar Irurtzunen.

mundu guztiari". Elikagai unibertsal bat baliatuko da horretarako, arroza. Gozatzeko gonbitea.

Zestauk jakinarazi digunez, sukaldari taldeekin batera, sentibilizazio panelak, zuzeneko

musika, Lorena Arangoarekin kale animazioa, haurrentzako joko berezia eta bestelako sorpresak izanen dira. Munduko Arrozak ekimenaren zazpigarren edizioa da aurtengoa.

DESKONTU ZUZENAK

Moztu eta dendan trukatu

5€ ko deskontu-txartela
50€tik gorako erosketetan
Ekainean zehar.

PINPILINPAUSA ALTSASU

KAXETA LIBURUDENDA
ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua jostailuetan. Ekainean zehar.

%20ko deskontua udako hiruhileko osorako ekintza gidatuetan

%10eko deskontua udako hilabete baterako

KUME ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontuak koltxoietan eta mugikortasun arazoak dituztenen dako altzari eta trenetan. Ikusi gure web gunean. Ekainean zehar.

COMERCIAL ETXARRI ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontuak Ekainean zehar.

BOUTIQUE EGIN ALTSASU

%20ko deskontua

Marka hauetan:
Mutilak: CATIMINI - IKKS - LEVIS.
Neskak: KOCCA - IKKS.
Ekainaren 5etik 13ra.

JOSELEN MODA ALTSASU

SAKANAKO DENDARI, OSTALARI ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

>> Etxarri Aranatz

Erlezaintza ikastaroa bermut garaian

Horixe jaso zuten makina bat etxarriarrek igandean, 13:30etik eta 14:00ak bitartean. Plazako zuhaitzetako batean erlauntz bat sortzen hasiziren erleak. Horren berri izan eta Txomin Insausti erlezainari deitu zioten. Hark, zenbait aldamioren laguntzaz, erlauntzaren parean jarri, nahasketa likido bat isuri eta erlauntza zuhaitzetik askatu, kutxa batean jaso eta plazatik eraman zuen.



Erleziaina aldami gainean erlauntza kentzeko lanean. MANU GOMEZ

>> Uharte Arakil

Ondarea jendaurrean



Ondarearen bilketarako elkarrizketatutako guztiek ezin izan zuten larunbateko aurkezpenegon.

Larunbatean 200 bat uhartere elkartziren Larrabieta frontoian. Oraingoan frontisak Uharte Arakili buruzko testigantzak jaso zituen. 21 uhartere aurreko mendeko bizimoduez eta ohiturez hizketan grabatutakoaren lagin bat eman baitzuen jendaurrean udalak eta Labrit

multimedia enpresak. 21 elkarrizketatuek oroigarri gisa euren grabazioaren kopia DVDan eta Uharte Arakilgo armarrria zuen ttattarrekoa jaso zuten. Denek ezin izan zuten egon eta haien orde senideek jaso zuten.

Udaletik jakinarazi digutenez,

Bideoa ikusteko:

<https://vimeo.com/129210142>

ondare ez-materialaren bilketaren aurkezpen bideoaren emanaldi berria, festen aurretik, hilaren 23an, plazan egingen da. Frontoian ez baitzen ongi entzun.

SAKANA



Ane Pirata eta Josune Azpiroz haien lagun batekin jaialdia iragartzen.

Esku hartze terapeutikoa aurrera eramateko jaialdia

Behar bereziak dituzten Sakanako haurren terapiak aurrera eramateko dirua jasoko dute Ane eta Piratak hilaren 13ko familia guztiari zuzendutako jaialdian

Bocalan Biak bat fundazioak behar bereziak dituzten aldeko elkartasun jaialdia antolatu du heldu den astebururako, garagarriaren 13

eta 14rako. Altsasuko korazonisten komentuan izanen da. Egitarau zabalaren barruan Ane eta Piratak jaialdia eskainiko dute, larunbatean, 17:00etan. Irrien Lagunakeko kideekin batera ohol-tzan Sakanako kultura, kirol edota hezkuntza arloko ordezkariak

>> Burunda

Begiraleendako prestakuntza ikastaroa

Haurtzaro eta nerabezaro tratuen onaren sustapen taldeak aisialdi eta kirol begiraleei zuzendutako prestakuntza ikastaroa antolatu du. Haurtzaro eta nerabezaro tratuen onaren sustapenerako tailerra izanen da. Ikastaroa hilaren 12an, ostiralean, izanen da, Olatzagutian. Izena ematea 11ra arte dago zabalik. 948 467 662 telefono zenbakira hots egin behar dute interesatuek. Edozein herritako begiraleek eman dezakete izena. Tailerrean parte hartzeagatik ziurtagiria jasoko dute.

>> Ziordia

Furgonetak harrapatutako emakumea hil egin da

Larunbatean 84 urteko emakume ziordiar bat oso larri zauritu zen istripu batean. Atzeraka zihoan furgoneta baten kolpea hartu, lurrera erori eta buruan kolpe handia hartu zuen emakumeak. Egutera kaleko 14. zenbakiaren parean gertatu zen ezbeharrak 11:00ak aldera. Medikuzerbitzuak hara iritsi eta medikua zuten ambulanzian Iruñeko ospitalegunera eraman zuten. Han hil zen. Bestalde, furgonetako gidaria, 26 urteko gazteak ez zuen zauririk izan. Foruzaingoak ikertu zuten istripua.

>> Altsasu

Zelandi kiroldegiko bazkide egiteko eskaintza

Hilaren 21era arte Zelandi kiroldegiko bazkide egiteak abantaila du. Bazkide egin nahi duen pertsona bazkide den beste batekin lagunduta joaten bada, biek izanen dute onura. Bazkide izan nahi duenak hasierako matrikula ez du ordaindu beharko eta bazkide denari hileko kuota bat deskontatuko zaio (ordainketak egunean izan behar ditu). Bazkide berriak urte baterako konpromisoa hartu beharko du eta lehenago baja eman behar gero

matrikula osoa ordaindu beharko dute. Ezin izanen dute eszedentziarik eskatu.

Altsasuko udal kirol azpiegiturak kudeatzen dituen Atabo enpresa publikotik jakinarazi dutenez, Zelandi kiroldegiko bazkide izatearen abantailak dira: jardueretan izen emateko lehentasuna eta deskontuak; Dantzalekuko igerilekuek sarrera doan eta fisioterapia zerbitzuan prezio merkeagoak eta beste.

>> Irurtzun

Garapenerako lankidetzaren proiektuarentako laguntza deialdia

Irurtzunge Udalak garapenerako lankidetzaren proiektuarentako laguntza deialdia egin berri du. Haren helburua da gobernu kanpoko erakundeei diru-laguntza ematea Hirugarren Munduko herrialdeekin lankidetzaren proiektuak egin ditzaten. Haiekin batera, Irurtzunge herritarrek sensibilizatzeko eta herritarren par-

te-hartzea sustatzeko jarduerak egin beharko dituzte. Azken horien bidez herritarren jarduerak eta jokabideak aldatu nahi dira Iparraren eta Hegoaren arteko desoreka ekonomiko, sozial eta kulturalen arazoaren inguruan. Eskaerak bihurtik hasita 30 eguneko epean aurkeztu daitezke Irurtzunge udaletxean.

>> Altsasu

Bokata Zelandikoen motxilan

Haurren artean elikadura ohiturak aldatzea eta gizentasun indizea txikitze helburua du *Ogitarteko bat zure motxilan* kanpainak. BM supermerkatuek sustatu dute, Embutidos Goikoa eta Berlys okindegiaren laguntzaz. Hiruen artean Nafarroako hamar ikastetxeetako ikasleei ogitarteko bana eman nahi diete merendatzeko. Maiatza akaberan Altsasuko Zelandi eskolako ikasleek jaso zuten ogitartekoa. Eta, horrekin batera, gurasoendako kanpainaren berri ematen duen esku-orria ere jaso zuten Zelandiko ikasleek.

SAKANA

45 ikasle unibertsitateko sartzeko probetan

Herenegun hasi eta gaur arte Nafarroako 2.880 ikasleek unibertsitatean sartzeko probak, selektibitatea, egiten ari dira Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Iruñeko Biurdana institutuan Dereduan ikasten ari diren Arakil aldeko 3 ikasleekin batera Altsasun dagoen Aralarko Mikel Donea institutuko Dereduko 37 ikasle eta A ereduko bost ari dira probak egiten. Guztira 45. Bakarren batek bigarren deialdia behar izanez gero, selektibitatearen bigarren deialdia hilaren 24 eta 26 artean egingen da.

» Etxarri Aranatz



Gaztetxeak 8 urte

Etxarri Aranatzko Gazte Asanbladak *Herriatik herriarendako, 8 urtez lanean* leloa aukeratu du gaztetxearen zortzigarren urteurrenerako. Egurditik ordu txikiak arteko egitaraua prestatu dute biharko.

Egitaraua

12:00etan Josui omenaldiye.
14:30ean Bazkaye.
18:00etan Gazte asanbladen arteko ginkana.
19:00etan Trikitilayek.
23:00etan Kontzertubek: Sakeo eta Aske.

» Uharte Arakil

Gazteendako sukaldaritza tailerra bihar Uharte Arakil

Sukaldaritzan trebatu nahi dute 12 eta 16 urte bitarteko gazte uharte-errek bihar horretarako aukera izanen dute. Izan ere, 17:00etatik 21:00etara bitartean Aralar Mendi elkartearen sukaldaritza tailerra izanen baitute. Ikasitakoa praktikan jarri eta bukatzeko jaki guztiek in afari merienda egingen dute. Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Uharte Arakilgo Udalak antolatuko dute ikastaroa.

» Altsasu

Festa erraldoia Intxostiapuntan

Bihar, 21:30etik 00:30era Intxostiapunta gazte txokotik pasatzen direnak festa erraldoia izanen dute. Gazteek zezen mekanikoarekin, karts-ekin eta giza-futbolinarekin gozatzeko aukera izanen dute.

» Burunda

Iñigo Aritza ikastolaren festa Ziordian

Ikasturte bukaera aurretik Iñigo Aritza ikastolako komunitate burundar guztia ospakizunean elkartuko da, ikastolaren egunean. Ospakizunaren txandakako antolaketan zior-diarrek hartu dute aurten lekukoa.

Egitaraua

11:30ean Kalejira trikitilariekin.
12:00etan Umeendako tailerrak eta herri kirolen tailerra, gaztetxe parean.
14:30ean Bazkaria.
16:30ean Ikasleen koreografiaren erakustaldia.
17:00etan Ginkana herrian barna. Adin guztiendako.

SAKANA

Corpus egunez hiru meza Aralarren

Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiako kideek jakinarazi dutenez, igandean, Corpus Christi egunean, aparteko elizkizunak izanen dira Aralarako santutegian. 10:00etan eta 11:00etan mezak izanen dira eta eguneko meza nagusia 12:30ean hasiko da. Hura despedituta, ohiturari segituz, santutegiaren eta Trinitate ermitaren artean prozesioa egingen da. Gainera, elizkizun bakoitzaren ondoren Aralarako aingerua gurtzeko aukera ere izanen da.

Etziko Corpus eguneko ospakizunek aparteko elizkizunak eta prozesioak ekarriko dituzte Sakanako herrietara. **Uharte Arakilgo** prozesioan estandarteak ikusgai izanen dira. **Lakuntzan** prozesioan aterako dira eta haien artean lehen jaunartzea egin duten haurrak egonen dira. **Arbizun** ere prozesioa ibilbidetan bitan geldialdiak egiten dira, propio jarritako aldareetan. Bidean dauden etxe asko eta askotako atak loreekin ederki asko apainduak egonen dira.

» Aizkorbe

Bihar festa nagusi

Altura handiengan dagoen Arakilgo herrian, Aizkorben bihar jai eguna dute. Egurditik gauko ordu txikietaraino hartzen duen egitaraua prestatu dute aizkorbearrek.

Egitaraua

12:30ean Meza
13:00etan Hamaiiketakoak.
14:30ean Herri bazkaria.
17:00etan Mus eta partxis txapelketak.
17:00etan Umeendako jokoak.
20:30ean Dantzaldia.
22:00etan Herri afaria.
00:00etan Su artifizialak.
 Dantzaldia.
4:00etan Festen akabera.

» Lakuntza

Kinto eta Corpus ospakizunekin, asteburu bete festa

Estreinakoz Lakuntzako makina bat kintadek data adostu eta euren eguna elkarrekin ospatuko dute. Lakuntzako kintoen eguna bihar izanen da. Ospakizuna hasteko, egurdian, 1965eko kintoez auzatea eskainiko dute plazan. Poteoaren ondoren, 14:30ean kintoak bazkaltzera joanen dira eta festak Tirry and Terry dj-n plazako musika emanaldiarekin izanen du segida. Biharamunean, igandean, ohi bezala, meza eta gero Corpus Christi eguneko prozesioa izanen da. Egun seinalatua da igandekoa Lakuntzan. Urtero moduan, 19:00etan, alkatte dantza dantzatuko da plazan. Hura despedituta, festak Dj Elebitanekin izanen du segida, 19:30etik 21:30era. Dantzaldirako indarrak berritzeko, 20:00etan, auzatea izanen da.

SAKANA

Konpost uzta jasotzeko garaia iritsi da

2013ko garilaz geroztik hondakin bilketa sistema berria indarrean da Sakanan. Orditik etxean sortutako hondakin organikoak auzokongostagailuetara eramaten dituzten sakandarrak asko dira: 2.458 familia (udazkenean Irurtzunen 100 gehiago batu zitzaizkien). Materia organiko hori konpostean bihurtuta bueltatuko zitzaizela jakinarazi zien Sakanako Mankomunitateak. Eta hala egingen du astelehenetik aurrera. Herriz herri 2013ko konpost uzta banatuko du. Beti ere, auzokongostagailuak erabili dituzten artean.

Mank-etik jakinarazi digutenez Arakil, Irañeta, Arruazu eta Ergoienan aurrerago egingen dute konpost uztaren banaketa. Daten berri auzokongostagailuak jarritako oharren bidez zehaztuko dute Mank-eko langileek.



Irurtzungo auzo konpostagailua haurren jolastoki.

Egutegia

Herria	Lekua	Eguna	Data	Ordua
Ziordia	Frontoi ondoan	Astelehena	Ekainak 8	11:00-13:00
Olazti	Intsumisio Plazan	Asteartea	Ekainak 9	11:00-13:00
Urdaian	Plazan	Asteazkena	Ekainak 10	11:00-13:00
Iturmendi	Plazan	Osteguna	Ekainak 11	11:00-13:00
Bakaiku	Plazan	Ostirala	Ekainak 12	11:00-13:00
Etxarri Aranatz	Estalopean	Astelehena	Ekainak 15	11:00-13:00
Arbizu	Plazan	Asteartea	Ekainak 16	11:00-13:00
Lakuntza	Plazan	Asteazkena	Ekainak 17	11:00-13:00
Uharte Arakil	Udaletxe ondoan	Osteguna	Ekainak 18	11:00-13:00

» Arbizu

FyTko kideak heldu den astean epaituko dituzte



Falange y Tradiciónen kideek egindako pintaketak egiteko manifestazioa egin zen Arbizun.

Falange y Tradición taldeko bost kideetatik hiru kide epaituko dituzte astelehen eta asteartean Espainiako Auzitegi Nazionalan. Talde terroristako kide izatea leporatu diete Javier Lopez Monreali, Jose Ignacio Irustari eta Borja Illerari. 2009ko otsaila

eta lastaila bitartean frankismo-ko biktimen oroigarriak hautsi eta ezker abertzaleko kideen kontrako ekintzak eta heriotza-mehatxuak egitea leporatzen diete hiruei. Fiskaltzak 7 urteko espetxe zigorra eta eragindako kalteak ordaintzeko 4.500 euro eska-

tu ditu.

Arbizuko Udala beste hainbat herrirekin batera akusazio partikular gisa ariko da epaiketean. 1.800 euroko kalteak eskatu ditu. Bestalde, mehatxatuak izan ziren lau udal ordezkariak bideo-konferentziaz deklaratu dute.

Gertaerak

2009ko agorriaren 20an Arbizuko lauzinegotziren izenak eta haien kontrako heriotza mehatxuak ("Orain zelatan, bihar hilko zaituztegu") agertu ziren idatzita Arbizuko udaletxeko fatxadetan. Aldamenean Falangeren logotipoa eta "1936.Gora Barandalla!" idazkia zeuden. Gerora Falange y Tradición taldeak bere gain hartu zituen Euskal Herrian egindako 25 eraso, baina zerrendatugabe. Lastailaren 23an atxilotu zituzten taldeko bost kideak.



9 lagunendako
TAXIA



SAKANA

Gure Esku Dago 21erako motoreak berotzen



Goian, Lakuntzako jostunak lana erakusten. Behean, altsasuarren lana. Eskubian, Irurtzungo salmenta postua.

Hilaren 21ean Euskal Herriko bost hiriburutan oihalezko hautestontzi erraldoiak sortzera deitu du Gure Esku Dago. Dinamikako kideek adierazi dutenez, hautestontzi erraldoi horiek erabakitze eskubidea gauzatzeko borondatea irudikatuko du. Iruñeako hautestontzia

egiteko lanak aurreratzeko Gure Esku Dago dinamika herrietako taldeak lanak aurreratzeko dira.

Hala, asteburuan Irurtzunen, Lakuntza eta Altsasun joste egunak antolatu dituzte. Herriarrek euren oihalzatia eskuratu eta erabakitze eskubidearen inguruko

Erabakitze eskubidearen alde jostera

Herriz herri banatutako oihal zatiak taldeka, koadrilaka apaindu eta josi egin behar dira. Eta horretarako aukera izanen da bihar Iturmendin.

Egitaraua

11:00etan Jostunak dokumentala Auzogelan.
14:00etan bazkaria eta kantaldia.
17:00etan Jostea.



Irurtzungo salmenta postua.

mezu anitzekin moldatu dute. Haien elkarrekin ere josi dituzte. Haietako askok gainera, Gure Esku Dagoren kamixetak edota 21eko zezen plazako ekitaldirako sarrerak eskuratu dituzte. Azken horiek, Altsasun, ostiral arratsaldero eskuratu daitezke, plazan.



Andian militarren hondakinak garbitzen



Guardia Zibilak Andiaiko lezera jaisten. UTZITAKOIA

Espeleologo batek gaztigatu ondoren, Guardia Zibilak Lizarragako portu ondoko leze batetik artilleriako jaurtigai zatiak, mortero

granada eta buztan egonkortzaileak atera zituen. Antza ez ziren arriskutsuak. Maiatzaren 25ean jaitsi ziren Guardia Zibilaren

lehergailuetan aditu bat eta mendi taldeko kide bana lezera. 40 metroko sakoneran zeuden hondakin militarrek zegozkion segurtasun neurriekin jaso eta gero suntsitu egin zituzten.

Joan den mendeko bigarren erdialdean Espainiako armadak maniobra militarrek eta tiro praktikak egin zituen Andian. Askok gogoan dute oraindik mendimagal batean harriz egin zituzten hiru kiak eta borobilak, diana gisa erabiltzen zirenak. Makina bat jendek militarrek utzitako hondarrak jaso eta txatar gisa saltzen zituzten. 1976ko garagarriaren 18an txatar gisa jasotako gerra jaurtigai batek eztanda egin zuen Etxarri Aranatzan. Leherketaren ondorioz bi gizon, emakume bat eta bi haur hil ziren.

Irurtzun

Karpa jarrita

Trinitateko festekin batera iritsi zen barazki-guneplazara karpa. Irurtzundarrekaurrekontu parte-hartzaileen bidez hura erostea erabaki zuten. Erabakiak ere kudeaketa herritarren artean adostea ekarri zuen ere eta,

horregatik, otsailan eta martxoan hiru batzar egin ziren. Irurtzungo talde eta kolektiboek hain jardueraren bat antolatu nahi badute udalarekin harremanetan jarri beharko dute. Karpak 150 metro karratu eta hiru metroko altura du.



Jaibusak 15 urte

SAKANA

Erabiltzaileak



Inkesten arabera 15 eta 22 urte bitartekoek erabiltzen dute gehien bat. Gehienak 18 urtekoak. Urteko urtera 25 urte baino gehiagokoak gero eta gehiago erabiltzen dute. 18 urtera arte, neskek mutilek baino gehiago erabiltzen dute. Baina 19 eta 25 urte bitarteko erabiltzaileen artean mutilek gehiago dira. Nafarroan gazteei egindako inkesten emaitzetan ikusi dute 22 eta 28 urte artean gutxiago erabiltzen dela zerbitzua, eta adin tarte horretako gazteek autobusa erabiltzea dute erronka. "Adin tarte horretan autoa hartzen dute. Ehuneko handi bat ez dago sentsibilizatuta eta kezagarria da". Beste arrisku praktika batzuk ere ikusten dira inkestan: sexu harremanetan kopuru handi bate-

an preserbatiborik ez da erabiltzen; jendeak droga bat baino gehiago hartzen duenean arlo guztietan neurriak jaisten ditu eta arriskuak handitzen dira (autoa hartzerakoan, sexu harremanetan edo liskarrak). "Egia da Sakanan adin tarte horretakoek gero eta gehiago erabiltzen dutela. Baina, hala ere, oraindik jende askok ez du erabiltzen". Gaineratu dute hirurek.

Iturri berak jaso duenez, 18 eta 25 urte artekoen artean, sustantzia bat baino gehiago kontsumitzen dutenen arteko kopuru handi batek ez du autorik hartzen kontsumitu ondoren. "Inkestan jasoa dago ere auto-istripu gehienetan kontsumitu ondoren gidatu duten pertsonak daudela".

Irten eta ez edan



Parrandara ateratzen diren koadriletan txandaka batek ez edateko ardura hartu eta gero gidatzeko oihura ere zabaltzen ari da. "Zaila da neurtzea" aitortu du Zabalak, Europar ohitura handia dagoela gaineratuz. Irizarrek gaineratu duenez, "lehen horri buruz, paktuak egiteari buruz hitz egiten zenuen eta "zer da hori?" galdetzen zuten. Ez dakit asko edo gutxi egiten den, baina orain jendeak badu horren berri". Gonzalez de Pedrosok esan duenez, aukera hori naturaltasunez hartu da: "urtero egiten ditugun inkestetan halako gaiekiko jendaren gero eta kontzientzia hartze

handiagoa ikusten da". Urteen joanarekin jendearen arrisku pertzepzioa aldatu dela aipatu du Zabalak. "Duela 15 urte alkohola eta drogak esaten zen. Orain baita, baina gutxiago da. Orain jendeak festetan alkohol metroak eskatzen ditu, probak egiten dituzte eta benetan baloratzen dute gaizki egonda ezin dutela autorik hartu". Alkohol metroak banatzeak eragina izan duela aitortu dute. Zerbitzuak ekarri duen beste aldatetako bat "paisaia" izan da. Dagoeneko ez da auto-stopik egiten festetara joateko. Eta hori Jaibusarekin lotu dute.

Jaibusak 15 urte

SAKANA

Jaibusak berrikuntzekin bete ditu 15 urteak

Maiatzaz geroztik joaneko txartelak besterik ez dira saltzen, joan-etorrikoen orde. Aurten hau gehiagotan eta autobus gehiagorekin ibiliko da

Sakanako Mankomunitateak finantzatzeko duen Gizarte Zerbitzuetako Prebentzio Programaren eskaintza da Jaibus. Eta duela 15 urte martxan jarri zeneko helburu berak betetzen ditu gaur egun ere: auto istripuen kopurua jaiste; alkohola eta beste sustantziek sortarazten dituzten isunak murriztea; jai baten ondoren etxera bueltatzeko balibideak erraztea eta gazteengan arduratsu izatearen garrantzia bulkatzea. Arrazoiak mantentzen dira.

Helburuak mantentzen dira, baita bete ere. Hala ziurtatu digute Jaibus zerbitzua kudeatzen duten Sakanako hiru gizarte zerbitzuetako prebentzio teknikariek: Josune Zabalak, Luci Gonzalez de Pedrosok eta Eneka Irizarrek. Azken horrek esan duenez, "eskualdean herrietako jaietara joateko ohitura handia dugu, gehien bat udan. Erriberako esperientzia ezagutzen genuen eta gure eskualderako egokia litzatekeela pentsatu genuen".

Jaibusak dagoeneko herrietako festez aparte zerbitzuak eskaintzen ditu. "Antolatzen diren kon-



Luci Gonzalez de Pedrosa, Eneka Irizar eta Josune Zabala.

tzertu eta bestelako jai mota batzuetara jendea mugitzen delako. Gazteek zerbait antolatzen dutenean eskatu egiten digute eta guk baloratu egiten dugu zenbat jende joanen den eta. Baina gaz-

teek eskatzea kontuan izan beharreko zerbait dela uste dut", argitu digu Zabalak.

Festa guztietan egotea nahi lukezela gaineratu du, baina horretarako muga aurrekontua dela nabar-

mentu du: "Sakanako Mankomunitateak egiten duen ahalegin handi bat da. Eta Mank udalak dira. Azkenean, Nafarroako Gobernutik heldu den diru-laguntza urtetik urtera gero eta txikiagoa da. %15en

Jaibus ez da gazteendako soilik. Sakandar guztiendako zerbitzua da. Berdin dio adinak. Gehien ateratzen direnak gazteak direla eta, horregatik, gazteek erabiltzen dute. Baina edozeinek erabil dezake zerbitzua.

bueltan dago". Mank-ek zerbitzua ren alde apustu egin duela pozik eta eskertuak daude teknikariak. "Aurten 5.000 euro gehiago jarri ditu Jaibuserako".

Lehen urtean udako zazpi gaue-tan eskaini zen zerbitzua. Gonzalez de Pedrosok nabarmendu duenez, "orain ilbeltzetik azarora arte Jaibus dago. Gero eta eskaintza zabalagoa dago eta horrekin batera gero eta erabiltzaile gehiago. Aurrera egiten ari gara".

Zerbitzua gelditu zenekoa



Teknikarien ustez Jaibusaren balorazioa egiteko une oso ona izan zen auto bus bat puskatu zenean. "Zerbitzua moztu genuen. Gehiago ez zela egonen esan genuen. Une hartan bai gazteak bai gurasoak mugitu ziren. Idatzia prestatu eta beste. Guretako ikustekoa izan zen: begira, zerbitzua baloratzen da. Haiek ere zerbait kentzen zirela ikusi zuten. Gertaera ez zen positiboa baina ikusi zuten erabilera txarra eginez gero denek ordaintzen zutela".

Ordutik gauzatxoren bat gertatu bada da ere, "orokorrean, autobusean jendearen jarrera egokia beti eskertzen dugu. Gehienek ongi erabiltzen dute Jaibus. Eta bakarren bat ari bada erabilera okerra egiten erabiltzaileak

beraiek esaten diote. Busti egiten dira, guztiak izorratzen dituela badakitelako". Erribera aldean autobusean segurtasun zaindaria doala aipatu dute. "Hemen ez. Beste modu batera da. Gazteen portaeraren alde positibo hori ere aipatu beharra dago".

Erabiltzaile gazteen kexak ere jaso dituzte, aldameneko herrira joateko autobusak herriz herriko buelta handia egin behar izaten duelako, eta oinez joanda azkarrago iritsiko liratekeelako. Edo geltokian daudela eta autobusa bete dela eta autobusak joan-etorria egin bitartean itxaron egin beharko dutela. "Pazientzia behar da. Batzuetan ez da erraza. Behin batek osasun etxera joan beharra zuela ikusi zuten eta inork ez zuten ezer esan".

2015eko aldaketak

Aurten Jaibusak ibarreko herri guztietan zerbitzua ematen saiatu dira. Bestetik gauko garraio zerbitzua eskaintzen den guztietan ez da autobus kopuru bera ibiltzen. Orain arte bi edo hiru autobus ibiltzen ziren gauak zeuden. Aurten bi autobuseko zerbitzu egun batzuk mantendu eta beste berri batzuk gehitu dituzte. Gainera, beste gau batzuetan autobus gehiago ibiliko dira, estreinakoz gau batean lau autobus ibiltzera iritsi arte.

Beste berrikuntza da maiatzetik aurrera soilik joaneko txartela saltzen dela. 1,5 euro balio du. Orain arte joan-etorriko txartela zuen soilik Jaibusak. 2,5 euro balio zituen. Baina txartela saldu da ere "ez genuen autobusean eserlekurik bermatzen. Zure aurretik beste batzuk iristen baziren haiek hartzen zuten eserlekua. Gurasoen kexa deiak jaso ditugu, tokirik ez zegoenez seme-alaben bila joan behar izan dutelako". Beste kexa bat izan da bidaia bakarra egin nahi izatea eta bi ordaintzera behartua egotea. Eta, azkena, aurreko txartelak gorde eta haiek erabiltzaile autobusean kolatze-ko gutxi batzuen nahia.

Prebentzio zerbitzua



"Ezin da ahaztu Jaibus istripuak prebenitzeko zerbitzu bat dela. Eta batzuetan ahaztu egiten da. Jaibus ez da herri batekoa, Sakanakoa baizik. Gauero herri guztietatik pasatzen da. Jaibusak jendea eraman eta ekarri egiten du. Guk jende asko mugitzen den egunetan ematen dugu zerbitzua. Gure helburua ez da festa jakin bat bultzatzea. Halakoak gertatu izan zaizkigu", argitu nahi izan du Gonzalez de Pedrosok.

Teknikariek sumatu duten beste kontu bat da: Jaibus dagoenez, jendeak atera behar du. "Ez. Ez du atera beharrik. Gurasoek ikusi behar du zer nahi duten seme-alabendako, utzi edo ez utzi". Amen iritziak jaso dituzte: eskertzeko da, askoz lasaiago nago...

Horrek pozten ditu teknikariak baina gogorarazi dute Jaibus beste zerbitzu bat dela. "Gurasoek ezin dute ahaztu azken hitza dutela". Beste guraso batzuek esaten dute-

naren arabera badirudi erabakia zailtzen diegula zerbitzua dagoelako". Zabalak gogorarazi duenez, "gurasoek baloratu behar dute seme-alaba festa horretara joatea egokia den edo ez. Argi baldin baduzu ona dela, zuk eraman autoan. Ez da Jaibusik behar. Zaila jartzen diegula. Beste gauza batzuetan bezala. Azken finean, azkenerabakia etxean hartzen da". Jaibus prebentzio teknikariek lantzen duten programetako bat gehiago da "Jaibus ezin du dena konpondu". Tailerrak, ikastetxeak... eta beste hainbat arlo lantzen dituzte. Festetan alkoholimetroak banatzen, sentsibilizazio lana egiten segituko dute. Teknikariek gaztetxoekin dute kezka eta udan 14 eta 17 urte bitartekoetan zentratutako kanpaina bat egingen dute, "kontsumoan arriskua dagoelako konturatzen garelako". Hala ere, beste adin tarreak ez dituzte baztertuko.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com

Maider Jimenez Lezea

II. urteurrena (2013/06/07)

Oso denbora gutxi egon zinen gurekin, nahikoa, ordea, betirako zu maitatzeko, horregatik gurekin jarraitzen duzu. Izugarri maite zaitugu, Maider.

Zure familia**Jose Marcos Gasanz Villuendas**

Ekainak 5, IV. urteurrena

Ez zaitugu ahaztuko.

Bere aldeko meza ekainaren 5ean ospatuko da, arratsaldeko 19:00etan Urdiaingo elizan.

Zure emaztea eta alabak

Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

GUAIXE
KOMUNIKAZIOA

948 564 275
Foru plaza 23-1
Altsasu
argi@guaixe.net

**Maria Luisa Bengoetxea Garziandia**

Ekainak 9, II. urteurrena

Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai hauts hartatikan uste gabean noizbait ginaden gu ernai...

Memoriko meza, ekainaren 7an, igandean, goizeko 11:30ean eta asteartean, ekainaren 9an, arratsaldeko 18:30ean, Urdiaingo elizan.

Zure familia

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua zorion@guaixe.eus-era edo hots egin 948 564 275 telefonora



GRUPO

Funeraria
VASCONGADA
Ehorzketak
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarrian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).

Argazki bakoitzeko 3€.

Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Lana/ Negoziok**LAN ESKAINTZA**

Begirale bat behar da. Urdiaingo Udan Euskaraz kanpainarako. Curriculum ekainaren 19ra arte Urdiaingo udalera eraman edo bidali helbide honetara: urdiain1@urdiainudala.e.telefonica.net

Higiezinak**ETXEBIZITZAK**

SALGAI

Pisua salgai Etxarri Aranatzan. 83m erabilgarriak, oso eguzkitsua eta bista ederrekin, berogailua, berritua... 70.000 €. Tel 654 23 41 02

Lokalak

Aitziber elkarteak taberna alokatzen da. Uztaileko eta abuztuko festetarako. Esleipena subasta prozedura erabiliz egingo da, edozein bazkidek lehentasunez hartzeko eskubidearekin. Alokairuaren intereraren prezioa 2.000 €. Interesa duten guztiak, Aitziber elkartearen aurkeztu behar-

ko dute, ekainaren 18an, iluntzeko 20:30ean, eskaintza ekonomikoa sobre itxi batetan sartuta. Informazio gehiago aitziberelkartea@gmail.com helbidearen bitartez.

Opatutakoak / galdutakoak**GALDUTAKOAK**

Urrezko lepokoa. Nefertitiren irudiarekin galdut. Sarituko da. 685 76 78 05 Amaia.

Oharak

Gure Ametsa jubilatuen elkarte. Turkiara bidaiari, irailtik 9tik 17ra, 1.200 €, mundu guztia joan daiteke. Autobusa Etxarri Aranatzetik aterako da. Izena ematea ekainaren 15 baino lehen. Informazio gehiago 636 82 71 66 Jesus Ubeda.

Bertso udalekuak. Euskal Herriko osoko haur eta gazteek parte har dezakete bertso-udalekue-tan. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak antolatzen ditu. Informazio guztia: http://www.bertso-zale.eus/eu/bertso-udalekuak.

Odol-emaelek. Ekainaren 9an Arbizun eta Uharteko Arakilen arratsaldean.

Arbizuko udako ludoteka. Galtzagorri ludotekak uztailean zabalduko ditu atek. Ludotekara haurrak bidali nahi dituzten gurasoek bakoitzeko haur bat 80 €, bi 130 € eta hiru 150 €, uztailean letik 31ra ordaindu beharko dituzte. Interesa dutenek udaletxera joan beharra dute izena ematera ekainaren 10a arte.

Etxarriko irakurle taldea. Garagarriaren 11n, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian elkartuko dira. Ana Jakaren "Ez zen diruagatik" liburua ariko dira hizketan.

Gure Esku Dago. Ekainaren 21erako Iruñeko zezen plazan antolatu duen ekitaldirako sarrerak ostialero Altsasuko plazan salgai.

Bertso-udalekuak. Euskal Herri osoko haur eta gazteek parte hartu dezakete bertso-udalekue-tan. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak antolatzen ditu. Informazio guztia: http://www.bertso-

JAIOTZAK

- Saioa Rodriguez Trujillo, maiatzaren 16an Altsasun.
- Amair Razkin Junguitu, maiatzaren 25ean Bakaikun.
- Katixa Apalategi Urbitarte, maiatzaren 28an Etxarri Aranatzan.
- Mikel Goikoetxea Vicente, maiatzaren 28an Lakuntzan.
- Eñaut Lopez Orellana, maiatzaren 30ean Altsasun.

HERIOTZAK

- Calisto Galarza Berastegi,

maiatzaren 14an Unanun.

- Isabel Berastegi Ijurko, maiatzaren 16an Lizarragan.
- Maria Carmen Escaño Castro, maiatzaren 29an Olaztin.
- Simeon Agirre Galbete, maiatzaren 31n Olaztin.
- Felix San Roman San Migel, ekainaren 1ean Olaztin.
- Prudencia Gastaminza Pozueta, ekainaren 1ean Ziordian.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

zale.eus/eu/bertso-udalekuak.

Iruñeko euskarazko telebistaren alde. Xaloo telebista Iruñerrian euskara hutsean emititzen haste-

ko 50.000€ behar ditu. Diru ekarpena non? www.karena.eu/proiektua/xaloo-telebista-irunherrian edo Iruñeko Karrikiri Euskal dendan (Xabier Karrika 4) eta Katakarak liburudendan (kale Nagusia 54).

TXIRRINDULARITZA - BTT

NAFARROAKO ITZULIA ETA BTT TXAPEL-KETA: Euskadiko Mikel Iturriak irabazitako afizionatuen Nafarroako Itzulian Rural Ku-

txako Etxeberria 5.a izan zen eta Zabala 6.a. Nafarroako BTT Txapelketan Mikel Otxoa 19.a sailkatu zen eta Mikel Irigoien 27.a.

kirola >>

Automobilismoa



Garikoitz Goñi auto berria.

Garikoitz Flores 4.a Aiakoigoeran

Garikoitz Goñi etxeberriarra 27.a sailkatu zen

Larunbatean jokatu zen 8. Aiakoigoera. 50 ibilgailu inguruk hartu zuten parte eta Aitor Zabaleta (Lola) izan zen azkarrena: 1:54.171. Garikoitz Flores lakuntzarrak lan polita egin zuen eta laugarrena sailkatu zen BRC 05EVO bere barketarekin (2:01.378). Goñi Motorsport Racing taldeko Garikoitz Goñi 27.a sailkatu zen (2:22.803). Aurten ibilgailu berria du Etxeberrikoak, Renault Megane.

Botxa

Iratxo Botxa Txapelketa aurrera

Botxa petanka antzeko joko tradizionala da. Aurten 10 hirukote ari dira lehiatzen Iratxo Botxa Txapelketan, 2 multzotan banatuta. Hasierako fase honetan taldeak elkarren kontra lehiatzen ari dira.

Asteburuko partidak

Ostiralean

19:00etan: Ferotx / Tirillas

20:30etan: Desesperados / Lirainak

Larunbatean

19:00etan: AHTrik ez / Xabier-Migel-X

20:15etan: Jordano-Guillermo-Iñigo / Asentsio-J. Javier-Manolo

20:15etan: Javier-Xabier-Erik / Tirillas

Ostegunean:

19:00etan: AHTrik ez / Jordano-Guillermo-Iñigo

20:15etan: Tximeleta / Xabier-Migel-X

Parapentea

Sakana Parapente Eguna

Larunbatean, 20:00etan

9:00etan: Izena ematea Altsasuko II Padrino jatetxean.

9:30ean: Hegaldia abiatzeko tokira oinez igotzea, monitorearekin. Materiala furgonetaz igoko dute.

10:00etan: Lehen erremontea errepidetik.

11:00etan: Auzatea Iturmendin. Egun osoan taberna zabalik.

20:00etan: Oztopo taldearen kontzertua II Padrioren terrazan.

21:30ean: Afaria eta oparien zozketa.

Sakana Baiza parapente taldeak Sakana Parapente eguna antolatu du bihar, larunbatean

Aurten Baiza Parapente Taldeak 26 urte beteko ditu. Hasieran gutxi batzuk ziren parapentean hegan hasi zirenak, baina gaur egun familia zabala osatzen dute. Bihar, larunbatean, euren festa ospatuko dute, Sakana Parapente Eguna. Eguraldiak eta haizeak laguntzen badu makina bat parapente iku-

Pilota

Ioldi eta Landiribar Irurtzungo txapelkunak

Iruñerrikoek 22-15 irabazi zieten Altsasu taldeko Azpiriri eta Peñasi 23. Irurtzungo Pilota Txapelketako finalean

Larunbatean jokatu ziren 23. Irurtzungo Pilota Txapelketako finalak. Aurten soilik senior mailan jokatu da aipatu txapelketa, eta 24 bikote lehiatu dira guztira, afizionatuen mailako puntako pilotariak.

Larunbatean txapelketa azken txanpara heldu zen. Lehenik eta behin, 3. eta 4. postuak zehazteko partida jokatu zen. Ezkurdia arbi-zuarra ordezkatu zuen Murgiondo etxarriarrak eta Tabarrek 22 eta 13 irabazi zieten Lansalot ordezkatu zuen Barandiarani eta Bergerari, partida ederrean. Eta, final handian, Uharte Iruñeko taldeko Eneko Ioldi eta Imanol Landiribar gailendu ziren, 22 eta 15, Altsasu

Parapenteak hegan



Parapentea Santa Marinatik abiatzen. SAKANAPARAPENTE.BLOGSPOT.COM.ES

siko ditugu hegan. Iturmendin lokala zabalduko dute egun guztian barna, mokaduren bat hartzeko, eta euren zaletasun handiengan murgilduko dira: hegan.

Gozatu eta erakutsi

Parapentea herritarreigerturatzeko asmoz antolatzen dute eguna. "Jendea jabetzeko zein den gure kirol hau, gertu dagoela eta erabiltzea dutela. Hegan egitea ez da zai-

la, denondako irekia den ekintza da" diote antolatzaileek. Bertako eta kanpoko jendea elkartu eta egun bikaina pasatzea da helburua, hegan egiten. Gainera, hurbiltzen diren kanpotarrei Sakanako bailara erakustea da beste asmoa.

sakanaparapente.blogspot.com.es

Baiza Parapente Taldearen informazio guztia eta eurekin harremanetan jartzeko aukera.



Irurtzungo Pilota Txapelketako finalistak eta gonbidatuak sari ematen.

pilota taldeko Igor Azpiriren eta Arkaitz Peñasen kontra. Nahiz eta Azpiri eta Peñas faboritoak izan, partida oso lehiatua izan zen eta bi bikoteak paretsu ibili ziren. Baina partida erditik aurrera Ioldik hobeto haztatu zuen eta Landiribarren laguntza bikainarekin

garaipena lortu zuten Ioldik eta Landiribarrek.

Sari ematean Irurtzun klubean trebatutako Jose Javier Zabaleta pilotari etxarrendarrak eta Jorge Nagore pilotari ohi irurtzundarrak hartu zuten parte, Irurtzungo alkate Txiki Iriarterekin batera.

Pilota

Olaztin San Migel Pilota Txapelketako 5. jardunaldia jokoan

Ostiral eta larunbatean

5. jardunaldia

Ostiralean, 20:00etan

4 1/2: Berat / Abraham

1. maila: Iurgi-Javier / Adur Mikel

22 urtez azpikoak:

Ansa-Otamendi / Berastegi-Plaza

Larunbatean, 17:00etan

3 maila

Alustiza-Gonzalez / Urtzi-Grados

Iñaki-Ibon / Ieregi-Mundiñano

1. maila

Martinez-Flores / Javi-Aies

Joseba-Unai / Urteaga-Lauzirika



Arbizu Zizurren kontra Herrien Arteko Txapelketan

Arbizu / Zizur

Igandean, 10:30ean, Arbuzun

Kimuak: Gorrotxategi-M.Imaz

(Arbizu) / Roldan-Oroz (Zizur)

Haurrak: Olaetxea-Petriati (Arbizu)

/ Arribillaga-Satrustegi (Zizur)

Gazteak: Nazabal-Goikoetxea

(Arbizu) / Barriola-Roldan (Zizur)

Helduak: Arruti-Agirre / Zehaztu gabeko bikoa (Zizur)

Frontenis

Sakanako Emakumeen Frontenis txapelketan 3. jardunaldia gaur

3. jardunaldia

Ostiralean, 20:00etan, Etxarri

Aranazko frontoian:

Andrea-Izar / Irati-Oihane

Ane-Uxue / Leo-Maider

Arantxa-Esther / Jone-Amairu

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

Igoa
arraiendegia
948 460 111 · Arkuetobide kalea · Etxarri Arantz

nereacnoz
nutrición
Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomatu (Nafarroako Unibersitatea)
Pisua kontrolatzeko dietak:
· Argaltzeko dietak
· Pisua hartzeko dietak
· Mantenimendu dietak
· Haurdunaldi-dietak
Patologia ezberdinetarako dietak
Kirol-elikadura
Elikadura arazoak
Nutrizio-hezkuntza
info@nereacnoz.com
nereacnoz.com
Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan
Estafeta 16, atzea · Lakuntza
(Bostekoa masaje zentroan)

Mendi lasterketak



XII. Lakuntza-Aralar mendi lasterketan izena emateko atzerakontua

Ekainaren 14an jokatu da eta ekainaren 12ra arte eman daiteke izena

Zabalarate elkarrekin XII. Lakuntza-Aralar mendi lasterketa antolatu du ekainaren 14rako, Lakuntzatik 9:30ean abiatuko den lasterketa. 24,7 km eta 1.154 metroko desnibel positiboko proba ederra da Lakuntzako, Aralar mendiko paraje bikainenetan -Guardetxe, Mugerdi, Beloki-kolepoa, Unakoputzua, Irumugarrieta, Pagomari- gauzatzen dena. Izena ematea zabalik dago ekainaren 12ra arte, www.lakuntza-aralar.com web gunearen bitartez.

Mendi txirrindularitza

XX. Altsasuko BTT Zeharkaldirako izena aurretik eman beharko da

Ekainaren 14an jokatu da proba ez lehiakorra eta soilik aurretik eman ahalko da izena, ekainaren 12a baino lehen

Barranka Txirrindularitza Taldeak 20. Altsasuko BTT Zeharkaldia antolatu du ekainaren 14an, proba ez lehiakorra. Aurten, nobedade moduan, bi ibilbide egiteko aukera egongo da, luzea (45 km, 804 metroko desnibela) eta laburra (28 km, 482 m desnibela). Aipatu BTT zeharkaldian parte hartzeko aurretik eman behar da izena, barrankatt.com web gunean, ekainaren 12ra arte. Lehenengoz probaren egunean ez da inskripzio-rik egingo. 700 pertsonak eman ahalko dute izena gehienez.

Txirrindularitza

Iosu Etxeberria 2.a eta Maialen Aramendia lehen emakumea Murietan

Igandean kadeteen mailako proba jokatu zen Murietan (54 km). Arabarrak taldeko Andoni Lopez baka-rrik iritsi zen helmugara (1:04:14), eta 9 segundora Quesos Albeniz taldeko Iosu Etxeberria sartu zen. Bere taldekide Ailetz Lasa 5.a izan zen, 23 segundora. Quesos Albeniz izan zen probako talderik onena. Emakumezkoetan azkarrena Maialen Aramendia iturmendierra izan zen (1:04:38). Bestalde, junior mailako Galarzako Zendeako Sarian Quesos Albenizeko Asier Etxeberria 8.a izan zen, mendiko txapelketako onena.

Txirrindularitza

Bizikletaz gozatzzen

Bizikleta hartuta goiz pasa ederra antolatu zuen Mank-ek Altsasan

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak eta Immigrazio Zerbitzuak bizikletari lotutako festa antolatu zuten igandegoizean Altsasan, Altsasuko Udalaren, Barranka Txirrindularitza Taldearen, Berri Bikes dendaren, Muruzabal bizikletak dendaren eta Altsasuko, Urdiango eta Olaztiko ikastetxeen laguntzarekin.

Ibilbidea, tailerrak, jolasak, trukea eta auzatea

Mank-etik balorazio positibo a egin dute. "Egun ederra, alaia eta osasuntsua izan zen igandean bizikleta ibilbidearekin hasi eta Iortia plazan auzate ederrarekin bukatu zena" adierazi dute. Goizeko 9:30ean ekin zioten bizikleta ibilbideari. Otadiako Santokristo, San Pedro, Erkuden eta San Juan baselizen ondotik pasatu zen ibilbidea, Barranka Txirrindulari taldeko kideak gidatuta. Hura bukatuta, partaideen artean Berri Bikes den-



Bizikleta konpontzeko tailerra adi adi jarraitu zuten.

dako botellinak eta bizikletarako kaskoa, argia eta betaurrekoen poltsa zozketatu ziren. Ondoren Berri Bikes eta Muruzabal bizikletak dendetako Joakin Beltran de Herediak eta Iñigo Lazkozek bizikleta konpontzeko tailerra eskaini zuten. Bitartean txikienek jolas herrikoiekin gozatu zuten: zapiak, koxkolak, zaku lasterketa...

13:00ak aldera jostailu eta kirol

material trukaketaren txanda izan zen. Etxetik ekarritako zerbait beste zerbaitengatik trukatzeko aukera izan zuten bildutakoek. Eta, bukatzeko, auzate berezia, Najat Essobairik pastak, tea eta cous-cous gozo gozoa prestatu baitzuen. "Goiz berezia eta berriz errepikatzea, familian eta lagun artean igaro genuena" adierazi dute antolatzaileek.

Mendi lasterketak

Ultra Beraza

III. Euskal Herria Mendi Erronka ultratraillean 9.a sailkatu zen uhartearra, probako lehen beteranoa

Larunbata goizean abiatu zen, Leitzako plazatik, III. Euskal Herria Mendi Erronka Ultratrail gogorra (65 km, 7.000 metroko desnibel metatua). Korrikalariek Guratz, Gorriti, Gaintza, Irumugarrieta (probako mendirik altuena, 1.431 m), Albi, Artxueta, Lekunberri, Etxarri Larraun, Ireber eta Kornietagainditu behar izan zituzten, Leitzara iristeko. 600 korrikalarik hartu zuten irteera, baina 493 iritsi ziren helmugara.

Sant Celoniko Daniel Agirrek sekulako erakustaldia eman zuen eta ia sei ordu eta hiru laurdene-



Beraza EH Mendi Erronkan. UTZITAKOIA

tan burutu zuen proba (6:42:59), Javi Dominguez gasteiztarrari 16 minutu aterata (6:58:05). Jose Luis Beraza bikain aritu zen eta 9.a iritsi zen helmugara (7:39:17), probako lehen beteranoa eta lehen sakandarra. Evaristo Noveleta

Sakandarrak III. EH Mendi Erronkan (65 km):

1.	Daniel Agirre	6:42:59
9.	Jose Luis Beraza	7:39:17
21.	Evaristo Noveleta	7:55:48
30.	Joxeja Maiza	8:05:13
35.	Gorka Santesteban	8:10:10
94.	Alatz Agirre	8:49:59
138.	Javier Beraza	9:19:19
182.	Jose Julian Lopez	9:42:23
261.	Mikel Perez de Eulate	10:18:41
284.	Felix San Roman	10:28:28
320.	F. Javier Rodriguez	10:40:41
323.	Sergio Goñi	10:41:33
337.	Arantzazu Larrañaga	10:50:56
338.	Patxi Rubio	10:50:56
378.	Iban Verdugo	11:14:16
409.	Iñaki Morillas	11:29:14

*105 erretiratu, Aritz Munarritz tartean.

21.a iritsi zen (7:55:48) eta gainontzeko sakandarrek 8 orduak gainditu zituzten.

Emakumezkoetan Elena Calvillo gailendu zen (8:23:012), Izaskun Zubizarretaren (8:39:11) aurretik. Arantzazu Larrañaga uhartearra 10. emakumea izan zen (10:50:56).



II. Ergako Trinitateko Kronoigoeran 39 korrikalari lehiatu ziren

Irurtzungo La Guan taldeak bigarren urtez jarraian antolatu zuen Ergako Kronoigoera, larunbatean. Irurtzundik abiatuta Ergako Trinitate ermitara igotzea zen erronka. 2014an 38 korrikalarik hartu zuten parte eta aurten bat gehiagok, 39 korrikalarik. Giro ederrean eta eguraldia lagun burutu zen proba.

Aurreko urteko edizioan bezala, Mikel Rubio izan zen azkarrena (22:44). Irurtzundarrak ia minutu eta erdi atera zion Alberto Martinezi (24:10). Emakumezkoetan Miren Zubietta izan zen lehena (31:40), Amaia Seminarioren (33:00) aurretik.

Ergako kronoigoeran Rubio eta Zubietta nagusi

II. Ergako Kronoigoera:

1.	Mikel Rubio	22:44
2.	Alberto Martinez	24:10
3.	Fran Codon	25:41
4.	Alvaro Munarritz	26:03
5.	Asier Reparaz	26:48
6.	Egoitz Carrion	27:33
7.	Bisbi	28:00
8.	Iñigo Etxarte	28:36
9.	Sergio Dominguez	28:59
10.	Lokillo	29:15
11.	Iñaki Arbilla	29:28
12.	Gaizka Angulo	29:35
13.	Alex	29:41
14.	Senia	29:42
15.	Andoni	29:49
16.	Jello	29:50
17.	Dani Saldise	30:18
18.	Andres C	31:03
19.	Txomin Nagore	31:07
20.	Miren Zubietta	31:40
21.	Fusi	31:44
22.	Javi Saldise	31:54
23.	Iñaki Azkona	31:54
24.	Ruben Moral	31:58
25.	Iñaki Razkin	32:00
26.	Oskar Lizarraga	32:10
27.	Francisco Juango	32:24
28.	Davicillo	32:38
29.	Amaia Seminario	33:00
30.	Idoia Alvarez	33:33
31.	Mikel Golarazena	33:37
32.	Marta Flamarique	33:42
33.	Kubalilla	33:44
34.	David Moreno	34:32
35.	Ramontxo	34:37
36.	Jonathan Vilches	34:54
37.	Patxi Viñas	35:59
38.	Roberto de Dios	38:08
39.	Anartz	39:10

Futbola

Altsasuko jubenilek lehen mailara igotzeko borrokan jarraitzen dute

Larunbatean Tuterako Lourdesen kontra galdu zuten eta Ardoi dute aurkari

Jubenil mailako Altsasu taldea bigarren mailatik lehen mailara igotzeko igoera fasea jokatzeko ari da. Larunbatean Tuterako Lourdes izan zuten arerio dantzalekun. Partida estuan, 0 eta 2 galdu zuten altsasuarrek. Sailkapen orokorrean. Lourdesek 9 puntu ditu, Ardoi 6 eta Altsasuk eta San Migelek 4. Asteburu honetan Altsasu Ardoi hartuko du eta irabazi beharrean daude altsasuarrek.

KRISTALAK APURTU

Tamalez, Altsasu eta Lourdesen kontrako partidaren futbolekit kanpo jazotako gertaera batek hartu zuen protagonismoa. Ezezagun batzuek Tuterako autobuseko hainbat kristal apurtu zituzten. Altsasu Klubetik gogor gaitzetsi zuten gertatutakoa. Foralak alboan zituztela utzi zuten Altsasu Tuterakoek.



ALTSASU TXAPELDUNORDEA HAURREN 2. MAILAN

2. mailako haurren mailan dabilen Altsasu taldeak denboraldi bikaina egin du. Gorka Paskuak zuzentzen duen taldea 1. faseko 2. multzoko txapeldua izan eta gero, 2. faseko sailkatu zuen, 1 eta 4 postuak erabakitzeko multzoan. 2. fase honetan bigarrenak sailkatu dira altsasuarrek, asteburuan jokatuako partidaren Gazte Berriak taldeari 1 eta 2 irabazi eta gero, Enekoren eta Alexanderren golekin. Hortaz, Nafarroako haurren 2. mailako txapel-dunordea dugu Altsasu.

KIMUAK TXAPELDUN NANCLARESEN

Kimuen mailako Altsasu taldeak Nanclares Torneoan irabazi du, Palenciari 3 eta 0 irabazi ondoren.

Ipar martxa

Nordic walkingean murgiltzeko ikastaroa Arbizon

Igandean, 10:00etan, ekokanpingean

Hankei ez ezik, besoei eta soinareen goiko alde osoari eragiten dion ibiltzeko modua da ipar martxa edo nordic walkinga, eskuan makilak lagun. Kirol honetan murgiltzeko oinarrizko ikastaroa antolatu dute, igandean, 10:00etatik 13:00etara, Arbizuko kanporean. Inskribatzeko: 660 547 755 (Joseba) edo 675 701 520 (Manu).

Mendia

Mendizale etxarriaren azkenzale festa etzi Auntzetxean

Goizeko 9:00etan abiatuko da mendibildia eta Auntzetxeko hamaiketakoan ospatuko da festa

Etxarri Aranazko Udaberri eta Larrañeta mendi taldeek azkenzale edo finalista festa ospatuko dute igandean Etxarri Aranatz. Aurten aldaketekin datoz. Jakina, lehenik eta behin mendi buelta egingen dute. Goizeko 9:00etan jarri dute hitzordua. Autoekin Etxarri Aranazko kanpineraino joango dira. Han autoak utzi eta trikuharrien ibilbide txikia egingen dute, Basopokaletik abiatuta. Urrizgain eta Zamalgein ondoren Auntzetxera heldu eta han hamaiketako ederra egingo dute.

BAZKARIA

Ondoren, haritz zaharren ibilbidea egingen dute, Iraigorri, Bordazelei eta Bortazabal dermioen barna, eta festa borobiltzeko Danbolintxulon, Etxarri Aranazko kanpinean geldituko dira bazkaltzera.

Atletismoa

**Zilarrezko Azkargorta eta Mintegi**

Larunbatean Nafar Kirol Jolasen atletismo finalak jokatu ziren Iruñean. Kimuen 300 m, 600 m eta 1.000 m-ko finalean bigarrena izan zen Fermin Azkargorta, eta haurren mailan Iker Mintegi ere bigarrena sailkatu zen 500 m eta 1.000 m-tan.

Squasha



Arbizuko txapelketako finalista.

Migel Moreno txapelduna Arbizuko Squash Txapelketan

Sei hilabeteren ondoren, despeditu da Arbizuko Squash txapelketa. Txapelketa Arbizuko kiroldegian jokatu da eta parte-hartzaileek adierazi dutenez, "luzea eta gogorra" izan da. Migel Moreno izan da txapelduna, Jabi Mendiñeta eta Juanan Morenoren aurretik. Xabier Pereda laugarrena sailkatu zen, Txomin Goikoetxea bosgarrena eta Jose Angel Murugarren seigarrena.

Atletismoa

Igandean Ziordian korrika

Ziordiko II. Herri Krosa antolatu dute igandean. 11:00etan kategoria txikiko probak jokatu dira eta 12:00etan proba nagusia (6,8 km). Proba aurretik izena eman daiteke

Running Ziordia taldeak II. Ziordiko Herri Krosa antolatu du igandera. Goizeko 11:00etan kategoria txikiko probak hasiko dira eta 12:00etan proba nagusiaren txanda izanen da. Korrikalariak hiru itzuli eman beharko dizkiote herrian barna prestatutako zirkuituari, 6,8 km osatzeko. Proba Sakanako Atletismo Koparako baliagarria izango da.

Izena ematearen truke Paris 365-rako jakiak jasoko dira

Ziordiko lasterketan izena emateko aurretik www.dantzalekuskana.com webgunera jo behar da. Bestela, egunean bertan eman ahaliko da izena, goizeko 10:00etatik 11:00etara, Ziordiko elkartean. Izena ematea dohainik da, baina



Aurreko urteko lasterketan 110 korrikalari aritu ziren proba nagusian.

izena ematen dutenek derrigorezkoa izanen dute proba erlikagaiak ematea, Paris 365 jantoki sozialerako jaki biltza egingen baitute antolatzaileek. Haurrek gutxienez kilo bateko erlikagaiak eman beharko dituzte, eta nagusiek gutxienez 2 kiloko kopurua.

Aurreko urtean 110 korrikalari hartu zuten parte proba nagusian eta Antonio Etxeberria (22:05) eta Izaskun Beunza (29:52) izan ziren garaileak.

Bukaeran, auzate ederra egonen da parte-hartzaile guztiendako eta antolatzaileek produktu lotek zozketatuko dituzte izena aurretik eman duten korrikalari guztien artean. Sailkatutako lehenengoek saria jasoko dute.

Agirrereren eta Beunzaren Aitzkozar

Bukaeran talde argazkia atera zuten saritutako guztiak.

Guztira 164 korrikalari aritu ziren Iturmendi abiapuntu eta helmuga zuen XI. Aitzkozar herri krosean. Sergio Garcia de Eulate eta Izaskun Beunza izan ziren lehen sakandarrak

Giro bikainean jokatu zen Iturmendiko Aitzkozar elkartek eta Bakaikuko Bakarrekotxea elkartek Dantzaleku Sakana klubaren laguntzarekin antolatutako XI. Aitzkozar herri krosa. Aurten lasterketak Iturmendi zuen abiapuntua eta helmuga. Lehenik eta behin kategoria txikiko probak jokatu ziren eta gero proba nagusia. Guztira 164 korrikalari lehiatu ziren, 104 proba nagusian.

Proba nagusian Iturmendi eta Bakaiku artean prestatutako zirkuituari bi buelta eman behar izan zizkioten korrikalariak, 8.100 metro osatuz. Juniorrek, aldiz, buelta bat eman behar izan zioten zirkuitu gorabeheratsuari. Iñigo Maiza etxarriarra (14:33) eta Haizea Salanueba iturmendiarra (18:33) gailendu ziren junior mailan. Helduen proban, aldiz, Ander Agirre bergara-



Kimuen nesken podiuma.

rra bakarrik iritsi zen helmugara, Ilunberriko Oscar Primori 10 segundo (27:34) eta Cesar Sanzagaraindarrari minutu luzea aterata (27:34). Sergio Garcia de Eulate

Sakandarrak XI. Aitzkozar Herri Krosean

Juniorrak

Gizonak

1.	Iñigo Maiza	14:33
2.	Haritz Berrocal	15:16
3.	Oihan Artola	15:41
4.	Jon Lanz	15:55
5.	Joseba Galarza	16:52
6.	Daniel Mateos	17:42
7.	Iradi Galarza	18:00
9.	Josu Etxabari	19:39
10.	Iñigo Galarza	39:20

Emakumeak

1.	Haizea Salanueba	18:33
2.	Aroa Arteaga	19:39
3.	Andrea Ganboa	25:19

Beteranoak

Gizonak

1.	Oscar Primo	27:34
3.	Raul Audikana	29:19
4.	Juan Luis Maiza	30:14
5.	Fco. Javier Gomez	30:37
7.	Alberto Razkin	1:37
8.	Jon Iñaki Araña	32:28
9.	Juan Carlos Gomez	33:26
10.	Jose Mari Igoa	33:26
11.	Santi Agirre	34:39
12.	David Trevejo	35:01
15.	Josu Ducar	36:01
17.	Juan Pedro Ariz	36:52
18.	Aingeru Azazeta	37:21
23.	Gotzon Auzmendi	39:43
25.	Jose Luis Mateos	41:23
27.	Jose Mari Mercero	41:48
29.	Eusebio Vinagre	42:06
30.	Raul Mendoza	42:12
32.	Jose Mari Larraza	44:48

Futbola

Etxarriko Torneo: puntako kadeteak lehian

Larunbatean, 10:00etatik aurrera

Urtero moduan, kadeteen mailako futbol torneo antolatu du Etxarri Aranatz Kirol Elkartek. Puntako 6 talde ariko dira, A multzoan Erreal, Pamplona eta Etxarri Aranatz, eta B multzoan Osasuna, Danok Bat eta Tolosa. TBoletok salduko dituzte, Osasunako eta Errealeko kamiseta eta beste zozketatzeko.

Etxarriko torneo

10:00etan: Etxarri - Pamplona
10:40ean: Osasuna - Tolosa
11:20ean: Erreal - Pamplona
12:00etan: Danok Bat - Tolosa
12:40ean: Etxarri - Erreal
13:20ean: Danok Bat - Osasuna
16:00etatik aurrera: Onenen arteko partidak eta finala.
19:30ean: Sari banaketa.

Emakumeak

1.	Erkuden San Martin	37:43
3.	Mari Gwen Davies	40:10
4.	Ginesa Lopez	40:10
5.	Silvia Perez	42:12
6.	Isabel Pozueta	43:26
7.	Mertxe Goñi	55:21

Nagusiak

Gizonak

1.	Ander Agirre	27:24
2.	Sergio Garcia de Eulate	29:10
4.	Ivan Gonzalez	29:33
5.	Javier Borrega	29:39
7.	Eukeni Goikoetxea	30:04
9.	Adur Senar	30:32
12.	Isidro Asurabarrena	31:09
13.	Julen Paniagua	31:22
15.	Gorka Garcia de Eulate	32:07
16.	Fran Araña	32:11
17.	Egoitz Aldaz	32:42
18.	Iker Grados	32:50
21.	Urko Agirre	34:11
23.	Iñaki Alvaro	34:20
24.	Ruben Mendieta	34:28
27.	Eneko Lopez	36:28
29.	Javi Galarza	36:50
30.	Mikel Luis	37:00
32.	Aner Galarza	37:50
33.	Alain Gabirondo	38:50
35.	Ismael L. de Goikoetxea	39:52
38.	Kepa Paniagua	41:00
40.	Iñaki Urteaga	52:22

Emakumeak

1.	Izaskun Beunza	34:33
2.	Haizea Ramirez de Alda	37:14
4.	Eki Galartza	48:28

*Oharra: Sailkapena egiterakoan antolaketaren bideratzaileak bideratutakoak eta nagusiak banatu ditu.

altsasuarra laugarrena iritsi zen helmugara (29:10) eta probako lehen sakandarra izan zen.

Emakumezkoetan Izaskun Beunza olaztiarrak ez zuen areririk izan (34:33) eta ia 3 minutuko aldea atera zion Haizea Ramirez de Alda altsasuarri (37:14). Erkuden San Martin etxarriarrak osatu zuen podiuma (37:14).

Bukaeran auzate ederraz gozatu zuten korrikalariak. Aitzkozar krosak Sakanako XII. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria mustu zuen, koparako baliagarria den

lehendabiziko proba izan zen Iturmendin jokaturakoa.

Kategoria txikiak

60 neska-mutiko lehiatu ziren Aitzkozar kroseko kategoria txikietako lasterketan. Aurrebenjaminean Ander Arteaga eta Helene Andueza gailendu ziren, benjaminean Iker Caño eta Maren Gorrotxategi, kimuetan Oier Puyol eta Vernica Calvo, haurren mailan Aimar Agirre eta Eider Vicente eta kadeteetan Fermin Azkargorta eta Amaia Vicente.

Sakanako haur kantariak Tafallan



Nafarroako Haur Kantarien jaialdi nagusia Tafallako kultur etxe berriak hartu zuen larunbatean. Nafarroako 19 talde eta bakarlari, guztira 186 haur; pasa ziren oholtza gainetik. Haietako lau Sakanatik joandako kantariak ziren: Lakuntzako eskolako Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoek 19 haurrek Kortaturen Sarri, sarri kantatu zuten; Lakun-

tzako San Saastin Musika Eskolako 8 eta 10 urte bitarteko 20 haurrek Gabi de la Mazaren Txanogorritxo abestu zuten; Olatzagutiko eskolako LHko 5. eta 6. mailako 5 abeslarik eskolako kanta abestu zuten, Udaberri usainez eta, azkenik, Josune Euzmendi bakarlari lakuntzarra; Sorotan Beleren Mariñelaren zain kantuaeren Lainen moldaketa eskaini zuen.

Bakarrizketa, buah txabal!

Gaur, 20:30ean, Etxarri Aranazko gaztetxean

Jon Zubiaga, Osoron, bakar-bakarrigoko da Etxarriko gaztetxeko eszenatokira. *Buah txabal*. Garikoitz Kortabitartek, Zubiagak jokatzeko duen paperak, horixe bera esaten du behin baino gehiagotan antzezlanean. Beno, bakarrizketa. Garikoitzek, *Buah txabal*, 20 urte ditu. *Buah txabal* eguneko ordu gehienak lokalean sartuta dago. Beti. Horregatik deitzen diote Beti. *Buah txabal*. Behin parranda egitera atera behar eta, *Buah txabal*, tragedia! Betik telefonoa galdu du. *Buah txabal!*



Aipamena Martinezen ipuinarendako

Euskara Kultur Elkargoak (EKE), Pamielaren laguntzaz, hamaikagarrenez antolatu du mikro-ipuin lehiaketa. Dereduko sarien banaketa Iruñeko Paz de Ziganda ikastolan egin zen pasa den asteazkenean. Eñaut Elorrieta musikaria izan zen ekitaldian, sariak banatzen eta kantuan. Lehen Hezkuntzako lehen saria Leitza joan zen eta EKEk maila horretan banatutako aipamena-tako bat Naroa Martinez Artiedak eskuratu zuen, *Zizen lekua* idazlanarekin.

Irakurle taldeak udarako atek itxiko ditu

Ostegunean, 19:00etan, Etxarri Aranazko liburutegian

Ostegunean despidituko du Etxarri Aranazko irakurle taldeak bere bigarren denboraldia. Azken saio horretarako Ana Jakaren Ez da diruagatik izango liburuaren bueltan hizketatzera elkartuko dira. Krisia atzean ageri den liburuan emakume bat eta bigizonezko dira protagonistan. Hirukia- ren erlazioek garatzen dute nobela. Hura irakurri eta ostegunean iritziak partekatzea gonbidatu dute irakurle taldeak.

Letren bidez Aliziaren mundura

Halaxe joan ziren pasa den ostegunean 15 haur olaztiar. *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* (1989, Pamiela) liburuaren pasarteak irakurri zituzten denen artean eta bakarren batzuk margotzera ere animatu ziren. Liburuaren Egunaren kontura Olatzagutiko Liburutegiak prestatutako egitaraua despiditu zuten horrela, Lewis Carrolek duela 150 urte argitaratutako liburu berrira irakurtzen.

Idazle sakandarrak Iruñeko Liburu Azokan

Ostiralean zabaldu zituen karpak eta larunbateraino hala izanen ditu Iruñeko Liburu Azokak Gaztelu plazan. Liburu aurkezpenak egiten ari dira. astelehenean *Morto Vivace* liburuaren gaztelaniazko itzulpena egin zuen Jon Arretzek. Bestalde, larunbat eguerdian, Jose Luis Asensiok auto-ekoiztutako *Ixa asap!* liburu aurkeztu zuen.

Parte hartzearen sekretua jendaurrean

Herri parte-hartzaile batek dakien moduan, elkarlanean, goraipatu zuen herrian bertan duten altxorra: parte hartzea. Larunbatean Irurtzungo kultur mugimenduko makina bat ordezkari *Bi Haitz Pean* ikuskizuna eskaini zuten. Amona batek bere ilobari eta haren lagunei emandako lorrazten bidez Irurtzungo parte hartzearen misterioa argitzen ahale-

gindu ziren. Egiteko horretan herriaren historiako hainbat pasarte antzeztu ziren jendaurrean, dantzari, erraldoi, buruhandi, antzezle, pertsonai mitologiko, margolari eta musikari ugariren laguntzaz.

Neskatilek opatu zuten, horrela, Bi haitz pean dagoen misterio horren gakoak: aurreko belaunaldietako irurtzundarrak. Haiek ere parte-hartzaileak zirela eta etor-



kizuneko parte hartzearen hazia ederki ereinda zutela argi gelditu baitzen. Horregatik, haiendako

aurreskua. Eta denek elkarrekin despiditu zuten elkarlanean egin dako ikuskizuna.

bazterretik

Laida Aldaz Arrieta



Lumière

Zinematografoaren jaiotzaren 120. urtemuga dela eta, L'Institut Lumièr-

en eskutik, Pariseko Grand Palais-en, Lumière familiaren asmakuntzen erakusketa ikusteko aukera duzue ekainaren 14ra arte.

Zinematografikoki egin ziren lehen saioen eta gaur egun ezagutzen dugun zinemaren artean mende bat baino gehiago pasa da. Erakusketak honek irudi animatuen historia, sorkuntza eta produkzio teknika desberdinak ikusteko aukera eskaintzen digu. Alde batetik, lehen argazki eta zinema makinak miretsi ditzakegu eta, bestetik, hauek sortu zituzten emaitza artistikoak: lehen filmak, argazki panoramikoak eta koloretako argazkiak.

Antoine Lumière eta honen seme-alabek (fisikari, zientifiko, kimiko eta asmatzaileak), batez ere Louis eta Augustek egindako asmakuntzak funtsezkoak izan dira zinemaren

garapenerako. Aitak Lyon-en (Frantzia) argazki lantegi txiki bat zuen non Louis eta Auguste lanean hasi ziren, bigarren hezkuntzatekniko ikasketak bukatu eta gero. Louis-ek 17 urtekin argazki-filma asmatu zuen eta produktu honen salmenta nazional arrakastatsuen ondorioz lantegia handitu egin zuten, argazki teknika eta produktu ugari ikertu eta sortuz. Auguste izango da Parisetik Edison- en kinetoskopiaeren berri Lyonera eramango duena eta itzultzean bi anaien artean, animazioa eta proiektzioa bateratuko zuen sistema asmatuko zuten zinematografoa. 1895-eko martxoaren 22-an Parisen aurkeztu zuten munduan egin

den lehen filma: *La Sortie de l'usine Lumière à Lyon* (erakusketa ikusteko aukera dago). Filma labur asko egin zituzten lantegi hartan eta gehienak erakusketak horretan proiektatzen dira. Lumière lantegiari esker ezagutzen ditugu desagertu diren hainbat tribu, kultur eta herrialde eta baita ere gauegungo gizardeen bilakaera.

Eztabaida sakona irekitzen du erakusketak, non urte gutxitan soinurik gabeko txuri-beltz irudietatik, edonork telefonorekin egin dezakeen bideo edo argazkietara iritsi garen. Jatorrizko irudien magia berraurkitzera eramaten gaituzte objektu hauek guztiek.

Sustraien dantza eta arima

Larunbatean, 19:30ean eta 22:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Dantzarima dantza konpainia berriak bere estreinako muntaia emanen du: Sustraiak

Disfrutatzeraz aterakodira bihar 13 dantzariak. Guztiek osatzen dute Dantzarima dantza konpainia, dua-la urte bat sortu zen. "Izenak dioten moduan arimaren dantza. Mugitze arima". Irantzu Gonzalez dantza irakaslearen eta Dantzarimako zuzendariaren hitzak dira. Gonzalezek berak gaineratu duenez, "nire haurrei esaten diegan bezala: dantzatu lehenengo barrutik eta gero kanpora atera. Jendeari adierazteko, erakusteko denok barrutik nola dantzaten dugun".

13 kidek osatzen dute Dantzarima. Etxarriar bat ez beste guztiak altsasuarrak dira. "Altsasun dantza mugitzeko, dantza bidez adierazteko, pixka bat aldarrikatzeko" sortu zen dantza taldea. Dantza talde berriko kide batzuk aurretik Etorbizuna dantza taldea euskal dantzak ikasitakoak dira edota gimnasia erritmikoan arituak. Orain Gonzalezekin "dantza mota ezberdinak nahasten ditugu" esan digu Leirek.

Ikuskizuna

Dantzarima joan den urteko otsailan osatu zen, eta Sustraiak ikuskizuna apirilean lantzen hasi ziren. Urte beteko lanaren fruitua ikusgai izanen da, beraz, bihar Iortia kultur gunean. "Azkenean dantza mota guztiak nahasten ditugu ikuskizunean, baina oinarria dantza garaikidea" dela jakinarazi digu Gonzalezek. Hala, euskal dantza, erritmikoko zinta batzuk, baletoko hainbat gauza, flamenkoko besoak... "ahal dugun guztia" hartu dute ikuskizuna ontzeko Beak esan duenez eta aurreratu du saioko aurreneko dantza garaikidea dela.

"Obra bat sortzean dantzarekin, ikuskizunarekin publikoari zer eman nahi diozun pentsatu behar duzu". Sorkuntzarako lehen abiapuntua hori dela argitu digu Gonzalezek. Dantzarimaren aurreneko obraren inguruan pentsa-

Taldekieak



Beatriz Morales Perez, Leire Bujanda Moro, Loreto Agirre Jara, Maider Lazkoz Merchan, Amaia Karasatorre Claver, Asier Urizar Ramos, Jenny Domingo Oraa, Yolanda Otxoa-Aizpurua, Naiara Pérez Iñurritegi, Miriam Gonzalez Palop, Nerea Arguelles Iriarte, Igone Augusto Fernandez, Paula Urabaien Otxoa-Aizpurua eta Irantzu Gonzalez Azpiroz.

tzen arizela, "gure haritzekin zein indarra dugun. Gure ustez sakan-dar guztiendako sustraiak gure oinarriak dira. Gure sustraiekin. Nortzuk garen. Nondik etortzen garen. Eta gaur egun gure sustraie-tatik, naturatik kanpo gaudela".

Eta Gonzalezaren pentsamendu horretatik Sustraiak ideia eta ikuskizuna sortu zen. "Bizitzeko, ura, sua, lurra eta haizea behar ditugula esatea da". Horretarako mitologiara jo dute Dantzarimakoak eta dantza emanaldian lamiak, sorginak... agertzen dira. Haiekin berriro sustraietara hurbildu nahia azaltzen da. Dantzarako doinuen artean asko euskal musikariak izanen dira: Lertxundi, Junkera, instrumentalak... Taldekideak

dantzatzearaz aparte, zuzenean perkusioa jotzera ere ausartuko dira.

Segida

Adin eta maila ezberdinak dituzte dantza taldeko kideek. Batzuen azterketak besteren lanak... horiek guztiak uztartu behar izan dituzte ikuskizuna aurrera ateratzeko. "Bakoitzaren prozesua eta bakoitzaren unea ulertzen, baina konpromisoa hartuta dutela gogoraraziz" aurrera egin dutela esan digu Gonzalezek. Horregatik, batzuk besteak baino gehiago dantzatzeko dute. "Taldearekin oso pozik nago, oso gustura ari gara".

Irantzurena izan zen taldea sortzearen ideia. "Baina ez ikuskizun bakarerrako, konpainia gisa segida izateko baizik. Beraz, aurrera

segituko dugu", ziurtatu du Leirek. Gonzalezek azaldu duenez, "nire lehen helburua nahi duen jende guztiak dantza egitera etortzea da. Beraz, jende berria sartzeko ateak zabalik egon dira". Hau bukatzean hurrengo obra prestatzen hasiko dira: "urte bat behar baitugu dena prestatzeko". Sartzen diren berriak, eskola gisa sartuko dira, "ikasten. Eta prest daudela ikusten ditudan ikuskizunean izanen dira".

Beak, azkenik, nabarmendu nahi izan du: "guk dantzatu egiten dugu. Baina atzean gu laguntzen jende pila bat dago: arropa, makillajea... ikusten ez den lan handia dago atzean. Eskerrik asko esan beharra diegu gure guraso-ei, bikoteei..."

Etxarriko abesbatzaren udaberrirako kantuak

Igandean, 19:00etan, Etxarri Aranazko elizan

Bularrak salto egiten dit zu berriro musukatzean. Hala dio Pepe Lerak Hechokoara-goeraz, cheso, idatzitako kantuak: Lo peito me brinca'n tornarte a besar. Eta lehen esaldi hori hartu du izenburutzat Etxarri Aranazko Abesbatzak bere udaberri kontzertuari izenburua emateko. Emanaldian Ejea de los Caballeros kolektiboa saria eman zieten abestiak

kantatuko ditu abesbatzak euskal kantuekin eta beste batzuekin batera. Alicia Armendarizek gidatuko du, beste behin, abesbatza.

Abesbatza txikia

Elizondoko eta Etxarri Aranazko abesbatza txikiek elkarrekin kontzertua eskainiko dute larunbatean. Elizan izanen da, 19:00etan.



Nonerabili

KIXKUR ESTETIKA ZENTROA

ZIORDIA

30 €ko gastuarekin %20eko deskontua produktuetan.

IORTIA HORTZ KLINIKA

ALTSASU

%10 aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Azterketa doan.

JULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA

ALTSASU

%5eko deskontua 50 €tik gorako erosketetan.

JON CORDON TAXIA

IRURTZUN

%10eko deskontua.

JAVIER AIZPUN HARATEGIA

UHARTE ARAKIL

50 €ko erosketetan, etxeko produktua doan.

UHARTE GAZTA

UHARTE ARAKIL

40 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

BERGARA CENTRO OPTICO

AGURAIN

Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

JUGA TAILERRAK

ARBIZU

%10eko deskontua mantenu piezetan, %5eko deskontua gurpiletan.

ENERITZ ILEPAINDEGIA

ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.

EKIN

ALTSASU

100€ko erosketengatik 10€ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik).



G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 8%	euria: 23%	euria: 28%	euria: 25%	euria: 58%	euria: 35%	
Min: 9 Max: 27	Min: 13 Max: 27	Min: 12 Max: 21	Min: 12 Max: 21	Min: 12 Max: 21	Min: 11 Max: 20	Min: 11 Max: 21	

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	29.5	6	0
Etxarri A.	29.1	2.9	0.1
Altsasu	27	4	0
Aralar	23	3.3	0.8
Urbasa	21.9	3.8	0

: ilargiaren aldia>>

	ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
	9	16	24	2

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Maiatzeko

bazkide sarituak

- 1.- **Oihana Zubeldia Jaka**
(Arruazu)
- 2.- **Inox Naparra S.A.**
(Etxarri Aranatz)
- 3.- **Lujan Lopetegi Larrayoz**
(Irurtzun)
- 4.- **Laura Sainz Goñi**
(Lakuntza)

GARAGARRILEKO SARIAK:

1. SARIA: Ekainberri museorako 2 sarrera, Gaztezero aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Artium museorako sarrerak, Artzako kanpinerako deskontu balea eta Donostiako Aquariumerako sarrera.

2., 3. ETA 4. SARIA: Gaztezero aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Artium museorako sarrerak, Artzako kanpinerako deskontu balea eta Donostiako Aquariumerako sarrerak.

>> 11

galdera

Itziar Matxain

Argazkilari irurtzundarra

Testua: Maider Betelu Ganboa



Festa hotsa heldu da!!

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.net

Festa programak diseinatu eta inprimatzen ditugu

%5eko deskontua Bierrik Fundazioko bazkideei

1. Txikitatik duzu argazkilaritzarako zaletasuna?
Txikitatik erabiltzen dut kamara. Institutua bukatzerakoan Bartzelonara joan nintzen goi mailako argazkilaritza ikastera. Hiru urte dira, bi ikasten eta azkenekoa proiektua egiten eta praktikatan. Bukatzerakoan ikuskizun argazkilaritzako espezializazioa egin nuen. Bideoak ere egiten ditut baina argazkilaritzat dut nire burua.

2. Zure lanak erakutsi dituzu?
Bai. Bartzelonan batez ere antzerkiari lotutako argazkiak egiten nituen eta erakusketak egin izan ditut. Bestalde, beste argazkilari batzuekin Kasua izeneko kolektiboa sortu genuen Bartzelonan. Argazki artistikoagoak egiten genituen eta erakusketak eta jaialdiak egin izan ditugu.

3. Egun edozein da argazkilari?
Ez. Egun edozeinek egiten ditu argazkiak baina edozein ez da argazkilari on bat. Argazkilari bat izateko prestakuntza garrantzitsua da, teknikoki eta kontzeptualki. Lan ona egiteko ikasketak behar dira, ofizialak edo norberak bere kabuz eginak.

4. Irurtzunera bueltatzea erabaki zenuen eta aurtun zure enpresa propioa sortu duzu, Itziar Matxain.
Bai. Egun Etxeberrin bizi naiz eta etxetik lan egiten dut. Printzipioz edozein lan egiteko prest nago, baina egun interiorismoan oso zentratuta nago. Izan ere, Txema Iriarte irurtzundarrak altzari denda du Iruñean eta berarekin hasi nintzen lanean. Mundu hori asko gustatu zait, gaiari buruzko ikastaro bat egin nuen eta egun, bereziki, inte-

rriorismo eta arkitektura argazkiak egiten ditut. Baina ateratzen diren gauza guztiak egiten ditut. Zure burua ezagutaraztea lan astunada. Pazientzia handia izan behar duzu, kontaktuak egin, zure lana erakutsi, jendearekin egon... Dena den, argazkilaritza beti izan da zaila. Badaude hilabete batzuk gauza dezente ateratzen direnak eta beste batzuk ez. Pixkanaka joan behar duzu kontaktuak egiten.

5. Negozioa sortzeko bidean zer izan da zailena?
Burokrazia eta paper kontua. Oso zaila egiten zitzaidan. Baina Arbizura jo nuen, Cederna-Garalurrera, eta oso ongi. Askok lagundu naute. Izan ere, autonomo egiteko memoria bat erredaktatu behar duzu, paperak egin... Cedernaren laguntzarekin azkenean ez da hain zaila izan.

6. Ikuskizunen mundua eta interiorismoa landu duzu. Eta paisajea?
Gustatzen zait, argazkiak egiten ditut baina gaia ez dut asko landu. Profesionalki antzerkiaren eta ikuskizunen munduan ibili naiz eta orain interiorismoaren eta arkitektura munduan. Oso mundu ezberdinak dira. Antzerkia, musika, dantza... txikitatik asko gustatzen zaizkit eta argazkilaritzari eskertzen Bartzelonan jende asko ezagutu dut mundu horretan. Interiorismoa bat-batean etorri zen... eta engantxatu naiz.

7. Oso kritikoa zara zure buruarekin?
Bai, gehiegi. Beti hobetu daitekeela uste dut. Horrek hobe izatera

bulkatzen nau, baina txarra ere izan daiteke, perfekzionismo hori kontrolatu behar da.

8. Zein dira zure argazkilari kuttunenak?
Asko. Ruben Dario brasildarra argazkilaritza artistiko moduan oso onada, paisajeetan Salgado eta interiorismoan Joan Roig, esaterako. Roigekin ikastaro bat egin nuen. Oso argazki onak egiten ditu.

9. Zein da zure helburua?
Estudioaz bizi ahal izatea, soldata normal bat izatea. Enpresaz kanpo, hemengo jendearekin proiektu asko egiten ditut, proiektu artistikoagoak, kobratu gabeak. Enpresarekin soldata ateratzea eta denbora librean gustuko gauzak egitea. Eta lanak esperimintatzea eta ikastea uzten badit... hobeto!

10. Lanak iristen ari dira?
Bai, pixkanaka. Udaberriak ekarri ditu dezente, baina lehenengo hilabeteak zailagoak izan ziren.

11. Zer da argazkilari bat izatea?
Galdera zaila. Argazkilari lana edozein izanda, seriooki hartzea. Jendeak pentsatzen du edonork egin dezakeela ezkontza erreportaje bat; ez da seriooki hartzen. Finean, argazkiak ateratzeari bere garrantzia ematea. Argazkilari izateko irudiaren mundu hori izugarri gustatu behar zaizu, gustatzen bazaizu zerbait esateko duzulako. Eta argazki on bat ateratzeko kamara, argia eta begiak dira ezinbestekoak. Hau da, gauzak ongi begiratzea. Sentsibiltate hori izatea.